

hiruka Uribe Kostako astekaria

HIRURTEKARIA
2015-2017





GETXO 2018

MUSIKA

JAIALDIAK

www.getxo.eus

JAZZ

42. Nazioarteko Jazzaldia

uztailaren 4tik 8ra

BLUES

30. Nazioarteko Blues Jaialdia

uztailaren 19tik 21era

FOLK

34. Folk Getxo BBK

Nazioarteko Folk Jaialdia

irailaren 13tik 16ra



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu



Agur

Atzera begirakoa duzu hau, irakurle; jazotakoari, egindakoari eta joandakoari gainbegirada. 'Agur' berbak duen amaieraren zentzuari jarraituz, gurean gertatuko (a)gurtu gura izan dugu; HIRUKAren hiru urteko zikloa labur batzeko asmoz. Noiz edo noiz egitekoa bazen, orain delako egundoko unea. Hirukotasuna buruan gabiltzalako Uribe Kostan; zu eta biok garelako HIRUKA.

Hiru urtekari hau antolatzeko, denboraren doinura dantza egin baino, hiru dantza-estilo aukeratu ditugu: herri-dantzena, erritmo sakon-luzeagoen gai-arloena eta parte-hartzaileen dantza askeena. Bakoitzean, gertakari eta adierazpen esanguratsuenak edo eztabaidatuenak zein aldaketa-eragin handiena izan dutenak jaso ditugu: Uribe Kostako bizitzaren aipagarrienak, berbaz eta irudiz. Hiru urteko tarte honetan, HIRUKAn irakurri ahal izan dituzun milaka albiste, elkarriketa, argazki eta iritzi galbahetu ostean, hurrengo orrialdeak horien flashbackez bete ditugu.

Orain dela hiru urte, indarrak batuta, 2015eko urtarril hartan aurkeztu genuen Uribe Kostako euskarazko komunikazio-talde berria: itxura, edukia eta egitasmoak. Hastapeneko bere bidea eta dantzaldia egin ditu: aurreku saridunak izan dira, gaupasetako estropezu-dantzak edo ere bai; eta, noizbait, dantza-eskaeraren begira jesarrita lotu izan gara, berbarako hirugarren oinarria den irratia martxan ezin ipinita...

Ostera, dabilen harriari goroldiorik lotzen ez zaiola jakinda, geldi egoten ez dakigunez eta alegrantziaren dantza-gogoak barrua hartuta digunez, 2018ko urtarril honetan zelanbait itxi egingo dugu orduan zabaldutako aurkezpen-eredu hura, hirurtekari berezi honen bidez.

Aurrerantzean, beste erritmo batzuk izango ditugu dantzabide; horiei begira, agur t'erdi...

GENEROA | Erasorik ez, erantzun barik

Sexu-indarkeriaren aurrean nazk



«Urte luzez emakume bakarra izan naiz gizonen munduan; hori aldatzen saiatzen nabil»

LA BASU
HIRUKA 112



«Euskararen normalizazioa eta feminismoa eskutik doazen borroka bi dira»

LOREA AGIRRE DORRONSORO
HIRUKA 89



«Ablaziotik bizirik irteteak ere eroan nau borrokatzera»

FÁTIMA DJARRA
HIRUKA 83



«Izendegiek emakumeak eta gizonak sortzen dituzte»

SAIOA IRAOLA URKIOLA
HIRUKA 88



«Nazkatuta gaudel! Erailketa gehiagorik ez!» oihukatu zuten 2015eko urriaren 6an, Astrabuduan, auzoko emakume baten erailketari erantzunez.

Uribe Kostako emakumeak erasoakaz nazkatuta daude, eta planto egin dute. Hamaika sexu-eraso jazo dira azken hiru urteotan eta emakume bat hil dute. Mugimendu feministak gogor erantzun die.

TESTUA: ZUBEROA ITURBURU ►

Emakume denak libre izan arte ez dira geldituko ohartarazi zuten Erandioko emakumeen taldeek 2015eko urrian, manifestazio jendetsu batez. Bezperan, 39 urteko emakume bilbotar bat hil zuten Astrabuduko Mezo kaleko etxebizitza batean, indarkeria-zantzu argiakaz.

Egunean bertan Leioako Akarlanda parkean atxilotu zuen Ertzaintzak emakumearen bikotekidea, Astrabuduko 38 urteko gizona, hilketaren susmagarri nagusi gisa. Horren aurrean, Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturalak eta Txoko Feministak «auto-defentsa feminista» praktikan ipintzera deitu zuten. Erandioko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak ere gaitzetsi zuen «indarkeria matxista egoera deitoragarri baten ondorioz emakumea tragikoki» hil izana. 2016ko azaroan epaitu zuten hildakoaren bikotekidea eta 12 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Alabaina, horren orde, 15 urtez psikiatriko batean sartzea erabaki zuen epaileak.

Azken urteotan Uribe Kostan jazo den emakumeen aurkako erasorik larriena izan

atuta daude herritarrak



Erailketa

2015eko urrian gertatu zen azken hiru urteotan Uribe Kostan jazo den emakumeen aurkako erasorik larriena: Astrabuduan emakume bat hil zuen bere bikotekideak. Erandioko emakumeen taldeek gogor salatu zuten hilketa, manifestazioa eginez.

Thesean

Leioan 14 urteko emakume batek sexu-erasoa jasan zuen 2016ko azaroan. Ustezko erasotzailea atxilotu bazuten ere, aske utzi zuten epaiketa egin bitartean, eta hark ihes egiteko baliatu zuen egoera. Erasoa eta urtebetera zoriz atxilotu zuten.

Jaiak

Mugimendu feministak erasoen aurkako lanketa berezia abiarazi du herrietako jaietan, horietan jazotako sexu-erasoen salaketan gorakadari erantzunez.

zen Astrabudukoa, baina ez bakarria. Hiru urteotan, eraso ugari berri jaso izan da orriotan eta mugimendu feminista horien aurka mobilizatu da denbora horretan. Erasotzaileak salatzeko gainera, lanketa berezia abiarazi du jaialdietan eta herrietako festetan, eta horien baitan salatu sexu-erasoen gorakada nabarmenduz. Deigarria da 2016ko azaroaren lehen gauean Leioan jazotakoa, epaileak ustezko erasotzailea libre utzi eta gizonak alde egiteko baliatu baitzuen egoera. Arimen Gauda ospatzen zen gau hartan eta, goizaldean, 14 urteko emakume baten aurkako sexu-eraso baten berri izan zuen Ertzaintzak. Gizon bat atxilotu zuten, 18 urtekoa, erasoaren ustezko egilea zelakoan. Epailearen aurrera eroan zuten eta hark aske utzi zuen,

karguakaz. Epaietan aurkezteko obligazioa ipini zioten, baina ihes egin zuen. 2017ko martxoan, biktimaren senideek hil-mehatxuak jaso zituzten Alemaniatik egindako dei baten bidez. Ordutik aurrera, gizonaren berririk ez zen izan 2017ko urrian Salamancan (Espainia) zoriz atxilotu zuten arte; eraso gertatu eta urtebetera. Salamancako poliziaategaz liskarra izan ostean, gizonak bilatzeko eta atxilotzeko agindua zeukala ohartu ziren, eta behin-behinean espetxeratu zuten. Arestian Erandion gertatu lege, Leioan ere ehunka herritarrek salatu zituzten sexu-eraso eta indarkeria matxista, eta Udalak «gogor» gaitzetsi zuen gertakaria. Baina ez da izan urteotan emakume adingabeen kontra eta Leioan gertatu den eraso bakarria. Iragandako apirilean, eskolatik irten bezain laster, Ondiz auzoan sexu-erasoa jasan zuela salatu zuen 12 urteko neska batek.

Jaietatik kanpora, ordea, egoera ez da izan hobe; emakumeen kontrako erasoak urte osoan gertatu ditira. Halere, denek jaso dute mugimendu feministaren erantzun sendoa. Ildo horretan, aipatzekoa da Bilgune Feministak 15 urte darozkela borrokan murgilduta, eta eskualdean talde berriak sortu direla: Haziak jaio da Getxoko Algorta auzoan eta Sorginen Alabak Plentzian. Denis Rey Ormazaz azken horretako kideak HIRUKAri azaldu zionez, «eraso matxistei aurre egiteko sortu ginen, baina badakigu hori ez dela arazo bakarria; jendartea astindu nahi dugu, patriarkatua errotik suntsitzeko».

HOMOFOBIA. Bestelako eraso sexisten berri ere izan da hiru urteotan. Kasu honetan, eraso homofobia izan zen. 2015eko apirilean gertatu zen, Algortako taberna batean, Kitzikan sexu askapenerako elkarteak zabaldu zuenez. Elkarteko kide bat modu bortitzean kolpatu zutela salatu zuten eta elkarretartzea egin zuten. Halere, epaiketaren garaian, eraso «liskar soil» baten moduan epaitu zutela kritikatu zuen taldeak.

Getxora ere iritsi zen beste eraso baten oihartzuna iaz, bertatik igarotzekotan izan baitzen Hazte Oir elkarte espainiarraren autobus transfobia. Bea Sever Egaña algortarra Chrysallis Euskal Herria elkarte kide da eta HIRUKAga berba egin zuen orain dela urtebete. Jendartean bulba duten mutilak eta zakila duten neskak badaudela aldarrikatzeagaz batera, horren gaineko errealitatea ezagutarazi zuen orriotan. ◀



«Autozentsuran ez erortzea da emakumeen erronka»

AMAL RAMSIS
HIRUKA 62



«Ez dago munduan gauza okerragorik, inork ez ikustea baino»

BEA SEVER
HIRUKA 85



«Euskara ez da sexista; erabilera, ordea, bai»

AINARA SANTAMARIA
HIRUKA 87



«Erregimen heterosexualak erori behar du; iraultzaz apurtu behar dugu»

URIBE KOSTAKO KITZIKAN
HIRUKA 73

GETXO | Hirigintzako proiektu handiak

Udalerria eraldatzeko lanak egin dituzte hiru urteotan



Obra horietako askok eragina izan dute trafikoan, eta auzokide askoren kexak jaso dituzte baita ere.

Azpiegitura berriak zein kaleak eraldatzeko askotariko lanak egin dituzte azken hiru urteotan Getxon. Horietako batzuk aspaldi abiarazi zituzten, eta daborduko amaitzeaz daude; beste batzuk, ordea, tarte horretan hasi eta amaitu egin dituzte. Auzokideek ere zeresana izan dute horietan denetan.

Getxo Antzokia, Romo Kultur Etxea, Gabela ibaiaren egokitzapen hidraulikoa, bidaia-ontzien terminala, Algortako etorbidearen berrurbanizazioa... Azken hiru urteotan askotariko aldaketak eta lanak egon dira udalerriko hainbat txokotan. Batzuk amaituta daude daborduko; beste batzuk, ordea, bidean daude oraindino.

Hasiera batean, Getxoko Antzokiak 2015ean atek zabalduko zituela aurreikusita zuen Udalak; hala ere, obren abiadura ikusita, 2017ra arte atzeratzeko beharra ikusi zuten arduradunek. Oraindino lanak amaitu barik daude, eta proiektuaren finantzazio-eredua behin baino gehiagotan salatu du oposizioak. Algortako Andres Isasi Musika eskolaren kasuan, aldiz, aurreikuspenak bete eta Antzokiaren ondoko egoitzan abiarazi zituzten ikastaroak, 2015eko irailaren 14an. Modu horretan, Algortako egoitzak Areetakoa osatzeari ekin zion, baina ikasleen kopurua handitu barik. Itzubaltzetako Romo Kultur Etxeari dagokionez, proiektua hezurmamitzen joan da urtez urte, hainbat auzokideren kritiken itzalpean. 2015 eta 2016 urteen

Hiru urteotan hirigintzari lotutako askotariko lanak garatu dituzte Getxon; batzuk amaitu barik daude

artean barne espazioak egokitzeko lanak amaitu eta ekipamenduak ipintzeari ekin zioten; 2017an, aldiz, eraikinaren inguruko eremuak egokitzeko lanak abiarazi zituzten. Behar horiek denak egin ondoren, aurtun, 2018an, eraikina zabaltzea dago aurreikusita.

Gobela ibaiak ere askotariko moldaketak izan ditu azken urteotan, bere ibilgua moldatze aldera. Egokitzapen hidraulikorako lanak 3 kilometrotik gorako eremuan izan dira, hau da, ibaiak udalerrian zehar duen ibilguaren % 65ean. Gainera, bederatzi zubi eta pasabide ordezkatu dituzte prozesu horretan. Horretarako, 25 milioi eurotik gorako inbertsioa egin du URA Uraren Euskal Agentziak.

BPA Bilboko Portu Agintaritzak 2016an esleitu zituen Getxoko bidaia-ontzien moilako terminal berria eraikitze lanak, 4,6 milioi euroan (BEZ barik). Urtebeteren ondoren, 2017ko apirilean azpiegitura inauguratu zuten, gurutzaontzien denboraldiaren hasieragaz batera. Arduradunek azaldu dutenez, terminal berria «Europako abangoardian» dago, eta urte horretako denboraldian 58 itsasontzik egin zuten geldialdia bertan.

Algortako erdiguneak ere askotariko lanak izan ditu azken hilabeteotan. 2017ko urrian, Salsidu etorbidea eta Bolue kalearen arteko bigurutzeari bide-sarea berrantolatze lanak egin zituzten, «oinetakoari lehentasuna emateko asmoz». Era berean, Algortako etorbidea berrurbanizatzeko proiektuari ekin zioten; hala, lurpeko edukiontzia ipintzeko indusketa-lanak egin zituzten, baita Basagoiti kaleko jardineria-hormak kendu ere, berriak jartzeko asmoz, besteak beste. Behar horien eraginez, ibilgailuen zirkulazioan aldaketa ugari egin behar izan dira, eta auzokide askoren ezinegona eragin dute. ◀

GETXO | Udalerriko gazte eragileak

Gazte-mugimendua biziberritu egin da



Indabada herri-jaia antolatzeagatik isunak jaso izana salatu zuten 2016an Algortako gazteek.

Udalerriko gazte eragileen artean mugimendu handia egon da hiru urteotan. Hainbat talde desagertu egin dira denbora tarte horretan, baina baita beste hainbat sortu ere. Ezbeharrak eta jazarpenak pairatu dituzte horietako batzuk, baina aurrera egiteko ilusioa ez dute galdu horietako batek ere ez.

Gazte-topaketa batzuen eztabaiden ondorioz, Haziak emakume gazte feministen taldea sortu zuten Algortan 2014 eta 2015 urteen artean. Garai horretan ere, «indar polizial erre-presiboak» kanporatzeko mugimendu irekia aurkeztu zuten herrian: Algortatik Hanka. Azken horiek askotariko ekimenak garatu dituzte ordutik, baita isunak jaso ere, «Mozal legearen eraginez». 2015eko apirilean, Itzubaltzeta/Romoko hainbat gaztek Itzubal Txiki aisialdi elkarte martxan ipini zuten, herriko 5 eta 15 urte arteko neska-mutilei begira lan egiteko. Urte bereko uda baino lehen Algortako gazte asanblada desegin zen, eta horrek utzitako hutsuneagaz zer egiteko asmoz, hainbat gazte batu ziren. Horiek behar bi azaleratu zituzten: astialdi-eredu alternatiboa eta kua-drillen arteko harremana bultzatzea. Hala,

Hainbat talde desagertu dira hiru urteotan, baina baita beste hainbat sortu ere, askotarikoak gainera

Algortako Gazteak taldea sortu zuten urtebeteke hausnarketaren ondoren. Horrek hainbat jaialdi antolatu ditu urteotan, tartean Indabadak. Ospakizun horrek 400 pertsona baino gehiago batu ditu azken urteotan San Nikolas plazan; hala ere, 2015ean eta 2016an Udalarren «jazarpenak eta isunak» salatu zituzten. Algortako gazte asanbladak beste hutsune bat utzi zuen Txorimalo gaztetxean, eta erai-kin horri zer-zelako erabilera eman behar zitzaien adosteko, Hamarnakatu prozesu irekia abiarazi zuten beste hamaika gaztek 2016ko apirilean. Itzubaltzeta gaztetxeak 12 urte bete zituen urte horretan, eta hori ospatzeko, gune autogestionatuaren aldeko ilusioa berpizteko lanean hasi ziren bertako gazteak, «Har ezazu giltza!» lelopean. Etxe Merkea atzean utzi eta lehengo eraikineria bueltatu bitartean ospatu zuten urteurrena; hala ere, 2017ko apirilean gune autogestionatua zen pabiloia erre egin zen. Ezbeharrak horrek gaztetxearen aldeko grina berpiztu zuen herrian, eta azaroan IGAKI Itzubaltzetako Gazteriarren Aisialdi eta Kultur Elkarteak eta Getxoko Udalak hitzarmena sinatzear daudela jakinarazi zuten, Errekagane-ko pabiloien etorkizuna arautuko duena. ◀

GETXO | Etxebizitza

Arazoari aurre egiteko saiakerak



Udalerrian 3.000 etxebizitza huts dago.

Etxebizitzaren «arazoa» arintzeko askotariko neurriak proposatu dituzte udalerrian hiru urteotan, baita aurrera eramane ere. Berbarako, Algortako Alango auzoko 145 Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE) alokairuan esleitzeko zozketa egin zuen Udalak 2016ko ekainean. Urte berean, gainera, gazteen emantzipaziorako eta etxebizitza-komunitateen gastuetarako diru-laguntzak ematen hasi ziren, Gobernu-taldearen (EAJ eta PSE) eta EH Bilduren arteko akordioaren ondorioz. Horrez gainera, etxebizitza hutsen errolda egitea adostu zuten alderdi bi horiek ere; izan ere, aurreikusita dago 3.000 etxebizitza hutsetik gora daudela udalerrian. Azterketa hori egiteko esleipena egin zuten 2017ko abenduan. Bestalde, udalerriko osoan 354 BOE eraikiko dituztela iragarri zuen Udalak urte horretako urrian. Garai horretan, EH Bilduk Gobernu-taldearen eta PPren etxebizitza-politika deitoratu zuen, «irtenbide» horrek orain arteko emaitza «berdina» ematen jarraituko duelakoan. Horren aurrean, etxebizitza-politika integral eta sozial bat aldarrikatu eta bere «Etxebizitza-plana» aurkeztu zuen koalizio abertzaleak. Talde horrek azaldu du «urteak» daroatzala etxebizitzaren arazoa lantzen eta 2016ko ekainean euren plana aurkeztu zuten Hirigintzako arduradunei. 2017ko azaroan, gainera, arazo horri buruz berba egiteko topaketak egin zituzten. ◀

ALGORTA | Begoñako galeriak



Balioan ipintzeko askotariko lanak

Arriluzeko Begoñako galeriak ezagutzeko bisita gidatuak abiarazi zituzten aurrenekoz 2015eko apirilean. Ordutik, hamaika aukera egon dira azpiegitura horrek gordetzen dituen sekretu ezezagunak, historia, pintura, esanahia eta sinbolismoa ezagutzeko. Urtez urte, EHUKo diziplinarteko aditu talde bat galeriak berreskuratu eta ondare horri balioa emateko lanean ibili da. Lanok ezagutzeko aukera ere egon da urteotan.

GETXO | Zabor bilketa

Aldaketak eta moldaketak

Garbiketa eta zabor-batzerako zerbitzuak zeresana eman du hiru urteotan. 2015ean greba mugagabea abiarazi zuten beharginek, lan-hitzarmena negoziatzeko. Ondoren, Gobernu-taldeak edukiontzi berriak ipini zituen, 2016an. Horien kokalekua aldatu zuten eta edukiontzi berrien formatuak askotariko iritziak sorrarazi zituen herrian.

ALGORTA | Txikia enparantza

Maria de Ibarra izena izango du

EAEko Auzitegi Gorenak Algortako Txikia enparantzari izena aldatzeko epaia eman zuen 2016an. Gobernu-taldeak ez zuen helegiterik aurkeztu eta 2017an gune horren izena aldatzeko prozesua abiatu zuen. Hala, auzokideek plazari Maria de Ibarra izena jartzea erabaki zuten bozketa bidez. EH Bilduk neurria deitoratu zuen.

ITZUBALTZETA/ROMO | Ibar Nagusien Etxea

Gaur egungo lekuan gelditzeko borroka



Gaur egungo eraikinean gelditzea gura dute nagusien etxeko bazkide gehienek.

Romo Kultur Etxera lekualdatzearen kontrakoak nagusitu ziren elkartearen zuzendaritza-batzordea osatzeko hauteskundeetan.

Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxea Romo Kultur Etxe berrira lekualdatzea gura du Getxoko Udalak. Hala ere, erabaki horrek ezinegon sortu du hainbat auzokideren eta Ibar Nagusien Etxea elkartearen bazkideen gehiengoaren artean. Horien arabera, bazkideek izan behar dute lekualdatzea edo ez erabakiko dutenak. Hala, euren erabakitzeko eskubideak aldarrikatzeko asmoz, galdeketa baten aldeko sinadurak batzen ibili ziren 2016ko apirilean. Dena den, garai horretan egitea ezinezkoa izan zen, «elkarteko presidentearen kalitatezko botoak ezinezkoa

2017an egindako galdeketa, bazkideen % 84 nagusien etxea lekualdatzearen kontra agertu zen

egiten baitzuen galdeketa hori aurrera eramatea», bazkideen arabera. Urtebete berandua, elkartearen zuzendaritza-batzordea osatzeko hauteskundeak egin zituzten, eta aldaketaren kontrako hautagaitza nagusitu zen, ordezkaritza osoa lortuta. Modu horretan, lekualdatzearen aldeko eta kontrakoaren arteko berdinketa apurto eta sinaduren bitartez lortu gura izan zuten galdeketa egiteko bidea zabaltzeko. Hala, 2017ko urrian galdeketa hori egin zuten bazkide denen artean. Denera, 540 bazkidek parte hartu zuten horretan, eta horien % 84k gaur egungo eraikinean gelditzeko alde egin zuen. 2017ko abenduan, gainera, Romo Auzokide Elkarteagaz eta Eraispeneren aurkako Plataformagaz elkarlanean arituko direla nabarmendu zuen zuzendaritza-batzordeak, nagusien etxearen ondoan dagoen eraikina eguneko zentroa bihurtu dadin. ◀

ALGORTA | Iturribarriko urbanizazio-prozesua

Ortu bako auzoa

Hainbat urtez 200 auzokide baino gehiagok landu dituzte Iturribarriko ortuak; 2015ean, baina, horiek kanporatu eta ingurua urbanizatu dute.

Iturribarri ingurua urbanizatzeko lanak hasi zituen BYCAM enpresak 2015eko urrian. Aurreko hilabeteen hasi behar zituen beharrak, baina, bertan ortuak zituzten auzokideen eskakizunari erantzunez, denbora urriaren 13ra arte luzatu zuen enpresak. Azaroan, gainera, bertoko hiru baserri hustu eta bota egin zituzten makinek. Handik hiru egunera, ehunaka lagun manifestatu ziren Algortako kaleetan, urbanizazio-prozesuaren kontrako iritzia azaleratzeko. Horrez gainera, bestelako hainbat mobilizazio

eta ekimen egin zituzten auzokideek, ortuen «beharra» aldarrikatu eta proiektuaren «irregulartasunak» salatzeke. Lanak hasi eta urte bira, ortuak suntsitu eta errepideak, bidegorriak eta espaloiak eraiki dituzte. 2017ko irailan, gainera, Getxoko Udalak Visesa sozieta-te publikoagaz hitzarmen bat sinatzea onetsi zuen, alokairuzko babes ofizialeko 136 etxebizitza eraikitzeke inguru horretan. Gainera, etxebizitza denak libreak izango dira, eta horiek erosteko panelak ikus daitezke bertako hainbat lur-eremutan. ◀



Inguru horretarako aurreikusitako etxebizitza kopuruaren erdia baino gutxiago izango dira BOEak. Alokairuzko babes ofizialeko 136 eraikitzeke hitzarmena sinatu zuten 2017an.



Kritiken artean garatutako proiektua



Iturribarriko urbanizazio-prozesua hasi baino lehen, 200 lagun inguruk lantzen zituzten ortuak; batzuek okupatutako lur-zatietan, beste batzuek, aldiz, euren jabegoko sailetan. Auzokide askoren iritziz, berdegune horrek «auzoaren nortasuna» azaleratzen zuen, eta proiektuaren kontraktasuna agertu dute hiru urteotan. Besteak beste, Hezetasuna Auzoko Bizilagunon Taldeak askotariko ekimenak egin ditu bere iritzia azaleratzeko. Taldearen arabera, «bortizki ailegatutako proiektu urbanistikoak ingurumenean kalte eta arazo sozialak eragiten ditu». Euren etxebizitzak ez desjabetzea eta negoziazio-mahai bat sortzea eskatu zuten askok; hala ere, Udalak proposamen horiek «kontutan hartu ez zituela» deitoratu zuten. Dena dela, desjabetutako hainbat familia akordio batera heldu ziren proiektuko bultzatzaileakaz.

ANDRA MARI | «BentaraNoa» prozesua

Balio askotariko gunea gura dute



Benta biziberritzeko proiektua garatu dute.

Getxoko Benta eraikinari zer-zelako erabilera eman erabakitzeke «BentaraNoa» ekimena martxan ipini zuen Udalak 2016ko urrian. Prozesu horretan, auzokideek euren iritzia eman ahal izan zuten, eta lehenengo fasea amaituta, «balio askotariko gune barneratzailea eta belaunaldien artekoa» sortzea proposatu zuten, besteak beste. Hala, 2017an bigarren faseari heldu eta eraikina berriro zabal dadin bultzatzeko herritar talde bat sortu zuten. Horren helburua da 2018an gauzatu beharreko ekintza nagusiak finkatzea eta eraikinaren gestioan inplikaturakoen arteko harremana definitzea.

ALGORTA | Fadura garagardotegia

Sutearen ondoren eraikina berrituz

Algortako Fadura kiroldegia alaboko garagardotegiak su hartu zuen 2016ko otsailaren 2an. Udal arduradunek orduan azaldu zuten garrek kalte material larriak eragin zituztela eraikinaren barruan eta egurrezko egituraren ere. Eraikina Getxo Kirolak erakundeak kudeatzen du, eta lan teknikoa eta tailer parte-hartzaileak egin ostean, ekipamendu berria zelakoa izango den definitzeko aurreproiektua garatu zuen iaz, 2017an. Tailerrotan gune hori erabiltzen zuten kirol-arloko klubek eta elkarteek parte hartu zuten. Aurreproiektuaren arabera, ekipamenduak hainbat gela edukiko ditu, erabilera desberdinetarako. Gainera, biltegiratzeko guneak, komunak eta sukaldea ere izango ditu, besteak beste.

Getxoko azkenengo berdegunearen defentsan

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ►

Andra Mari auzoan, Ibarbengoa metro-geltokiaren ondoan, hiru solairuko aparkalekua eraikitzen ari dira gaur egun. Proiektuak zalantza ugari sortu ditu urteotan, eta Getxoko Udaleko oposizioko hainbat taldek horrekiko desadostasuna agertu dute ere behin baino gehiagotan. Hala ere, borrokarik nabarmenena Tosu Betirako plataformak aurrera eramandakoa

izan da. 2014an erresistentzia-kanpaldia abiarazi zuten Tosu landan, 2017ko urrian Ertzaintzak ingurua hutsarazi zuen arte. Denbora tarte horretan, obren hasiera galarazteko askotariko saiakerak egin dituzte, eta ehunka bizilagunen babesa izan dute horietan denetan. Ekintzaileen arabera, aparkalekua egiteaz gainera, obrek «Getxoko berdegunea urbanizatzea dute helburu». ◀

Borroka bati errepasoa



2011ko iraila

Ibarbengoako metro-geltokiaren obrak hasita zeudela, 60 bat lagunek Lurralde Zati Planaren kontrako kanpaldia egin zuten horren ondoko landan.



2014ko iraila

Uribe Kostako Lurralde Zati Planaren Aurkako Asanbladak Tosu landa okupatzera deitu eta erresistentzia-kanpaldi mugagabea abiarazi zuten. Gerora, Tosu Betirako plataforma sortu zuten bertan.



2016ko azaroa

Dragados S.A. eta Geotecnía y Cimientos S.A. (Geocisa) enpresek osatutako aldi baterako enpresa-elkarteak jaso zuen lanen esleipena. 12 hilabeteko epea eman zioten obrak egiteko, esleipena sinatu eta hurrengo egunetik hasita.



2017ko urria

Ertzaintza Tosu landan sartu zen, han zeudenak kanporatu eta parkingaren lanak ahalbidetzeko. Hiru lagun kateatu eta beste hainbatek herri-harresia egin zuten etxolaren aurrean. Poliziek denak kanporatu eta beharginek etxola bota zuten.



2017ko urria-azaroa

Hutsaraztea eta egun bira, ehunka lagunek obraren ondoko landa okupatu zuten. Horren aurrean, obra-eremu osoa hesitzeko lanak abiarazi zituzten, okupatutako landa barne. Segurtasun-hesi berriak metro biko altuera du, eta obrak martxan daude orain.

Ekologiaren «kontrakoa»

Tosu Betirakoen ustez, proiektua «faraonikoa» izateaz gain, «ekologiaren kontrakoa» da, «ortu-proiektua eta lur-azpiko akuiferoak suntsituko dituelako».

«304 arrazoi» parkinga egiteko, BGPren ustez

Estalitako 304 aparkaleku hartuko dituen parkinga eraikitzen dabiltza Ibarbengoa metro-geltokiaren ondoko landan. Sustatzaileek azaldu dutenez, «diseinu integratzailea» izango du, «geltokian eta Andra Marin integratuta geratuko da, soslai baxuko diseinuagaz». Hiru solairu edukiko ditu, horietako bi lur azpian egongo dira. Bertara sartu ahal izateko beharrezkoa izango da trenbidearen trazatutik paralelo joango den eta Ormazako estratagaz lotura izango duen errepidetik joatea.

Parkinga erabiltzeko, 70 zentimo ordaindu beharko dituzte gidariek, egun osoan autoa bertan uzteagatik. BGPK azpimarratu duenez, metro-linearen laugarren parkinga izango litzateke Getxokoa; Leioakoaren, Etxebarrikoaren eta BECekoaren ondoren. Datuen arabera, errepedeetatik 300.000 ibilgailu kentzea lortu da orain arte horiekaz.



TOSU
Betirako

ERANDIO | Memoria historikoa

Faxismoaren erasotik 80 urte

Erandioztarrek hainbat omenaldi egin zieten faxismoak hil zituen herritarrei, 1937ko bonbardaketetan, Gerra Zibilean eta Frankismoan. Udalak Aldundiari eskatu zion akusazioa izateko Argentinako Justizia Administrazioak Frankismoaren aurka zabalduzako auzietan; bertan da Josu Muruetaren alargunak ipinitako salaketa.

LUTXANA | Garraioak

Txorierriko trena berreskuratuta

Lutxanak 1893an estreinatutako tren-geltokiari eutsiko dio. Metro Bilbaoko 3. lineako beharrek zabaldu zioten atea auzoa Txorierriko linean berriro sartzeari, hemeretzi urtez hortik deskonektatuta egon ondoren. Lanak amaituta, Euskotrenek behin-behinean mantendu zuen Lutxana-Sondika ibilbidea, herri-eskaerari kasu eginez.

ERANDIO | Auzitegiak

Zinegotzi ohi bat zigortu dute

Urte askoko instrukzioaren ostean, Bilboko 2. zigor-epaitegiak zazpi urteko gaitasungabetzea eta 8.470 euroko kalte-ordaina ipini zizkion Itziar Koba zinegotzi ohiari, Recuperaciones Esma SL txatartegiaren auzian. Joseba Goikouria alkatea eta Asier San Nikolas Hirigintza zinegotzi ohiak, osterak, errugabetu egin zituzten.

ASTRABUDUA | Parkingak

Autoa uzteko zailtasunak

Astrabuduak aparkalekuen gabezia kronikoa dauka. Hala, Udalak metro-geltokiaren parkinga zabaltzeari ekin zion 2015eko apirilean. Gerora, Parkingei Konponbidea Orain plataforma sortu zen, ehunka auzokidek babestuta. Udalak behin-behineko konponbideak bilatu zituen; auzotarrek «behin betikoak» eskatu zituzten.

ERANDIO | Gune autogestionatuak

Kalezulo gaztetxeari, hutsarazteko agindua



Azken urteotan ehunka gazte mobilizatu dira Kalezuloren alde.

Joan den azaroan bete ziren sei urte dozenaka gaztek Altzagako Jose Luis Goioaga kaleko lantegi zahar bat okupatu eta Kalezulo gaztetxea zabaldu zutenetik; hutsarazteko epailearen agindua jaso zuten abenduan.

Bilboko lehen auzialdiko 4. epaitegi-ko epaileak epaia eman zuen 2017ko abenduaren 5ean, Erandioko gaztetxetik ateratzeko agindua emanaz. Arrazoia eman zieten Promotora Arensola SLU enpresari eta likidazioan dagoen Ereaga Gestión SL sozietateari, jabetzaren gainean sei urtean egon den hirugarren auzian.

Kalezulo gaztetxeko kideek auzolan-eguna zabaldu zuten, eraikinaren barruko materiala ateratzeko. Izan ere, gazteak ez dira oso baikorrak: «ziurrenik, sei urtez Erandioko zein inguruetako birika izan den gazteontzako gune aske hori itxiko dute epe oso laburrean», nabarmendu zuten. Halere, argi

Zorrek eragindako esku-aldaketa

Gaztetxeko kideen arabera, eraikinaren ugazabak ez ziren trabarik ipini, baina zeuzkan zorren ondorioz, enpresa hartzekodunen lehiaketara ateratu zen.

utzi zuten ez zirela beste barik joango: «gure ahalegin denagaz segituko dugu gaztetxea defendatzen eta hurrengoentzat esperientzia baliagarriak sortzen. Elkartasuna eta auzolana ditugu eta izaten jarraituko dugu, aurrera egiteko». Azken urteotan, hainbat gazte identifikatu, isun-espedienteak zabaldu eta auziperatu dituzte, Kalezulogaz lotura zutelakoan. Orain arte, auzipetutako neska-mutil denei absoluzioa eman diete eta inork ez du jaso behin betiko isunik.

Epaitegi-tara jo zuten enpresez gain, Erandioko Udalak ere esku hartu zuen: gaztetxea ixteko dekrétua jaulki zuen iazko uztaillean. Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziaren arabera, «gaztetxeak ez dauka Joko eta Ikuskizunetako Legearen arabera dagokion jardueralizentzia; Ingurumeneko eta Lurreko legeen arabera, ezta ere». Udalaren ustean, «ingurumenean eta pertsonengan duen eraginagatik aurretiko lizentzia bat behar du». Segurtasun-arrazoiak ere aipatu zituen zinegotziak. Gaztetxekoek, osterak, leporatu zioten «gaztedi kritiko eta politizatuaren» aurka egitea. ◀

Tartangaraino dator Abaroaren zurrumbiloa

Hamarkada bat pasatu da Altzagako 66 familia euren etxeetatik atera behar izan zirela, Abaroa eraikuntza-enpresak ondoan egindako etxeen lanengatik.

Zortzi urteko arazoari behin betiko konponbidea emateko, hainbat saialkeraren ostean, hirigintza-operazio bat egitea adostu zuten kaltetuek, Aldundiak eta Udalak, 2015eko urtarrilean. EH Bilduk auzoko berdegune bakarra desagerraziko zutela salatu zuen.

Urte bi beranduago, 2017ko maiatzean, berriaz, Azpiegiturak foru-sozietateak atera zuen lizitaziora Erandioko Altzaga auzoan egoera arriskutsuan zeuden aipatutako etxeak bota eta 113 etxebizitza eta hamar merkataritza-lokal berri eraikitzeko lehiaketa. Eraiste-lanak Altzagako Ibarra, Ibarrondo eta Antxon Fernandez kaleetan eta San Agustin plazan egitekoak ziren. Aldundiak azaldu zuenez, ekimenak helburu bi beteko ditu. Batetik, Abaroa enpresak eraginda 2007an kalte larriak jasan zituzten etxebizitzetako 66 familiei behin betiko konponbidea ematea. Bestetik, eremu horren hirigintza berritzea. Aldundiak eskertu zuen auzokideek orain arte erakutsitako «pa-



Altzagako gunen berderik zabalena da Tartanga. ©TARTANGA BERDEA

Abaroak kaltetutako auzokideak senideakaz edo alokairuan bizi dira euren etxeak galdu zituztenetik

zientzia». Hala, bidean diren 113 etxebizitzetaz gainera, beste 400 gehiago dira altxatzekoak Tartangan. Helburu horregaz, kiroldegia ondo berdegunea utzi zion Udalak foru-enpresari, iazko abuztuan. Lursailak 20.000 metro koadro baino gehiago ditu.

EH Bilduk, Ezker Anitzak eta Tartanga Berdea ekimenak kritikatu dute Altzagako «biri-ki berdea» galduko dela eta operazioak Babes Ofizialeko Etxebizitza kopuru txikia sortuko duela. 2017ko azaroan, Azpiegiturak enpresako teknikoek etxeak aztertu zituzten, urtarrean bota ahal izateko. ◀



«Batzeak indarra dakar, denon alde egiteko»

ALTZAGA-ERANDIO NAGUSIEN ELKARTEA
HIRUKA 16



«Ategorrin oreka bilatu beharko dugu, karua izango baita»

MARINA GARCÍA FRANCO
Erandio Kirol Elkarteko presidentea
HIRUKA 17



«Zirrikituen bila ibili dira, Sentinelen aurka egiteko»

IÑAKI SUSUNAGA,
Sentinel Rock aretoko nagusia
HIRUKA 22

MMXVIII

XVII. Ipuin eta narrazio lehiaketa

X. Bertsopaper lehiaketa

Adin guztietako Erandioztarrontzat

Epea zabalik

2018ko matxoaren 22ra arte

Informazioa eta oinarriak:

Erandioko IKASTETXEetan edo udaleko EUSKARA ZERBITZUAN

www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus

euskara@erandio.eus

944890128

PATRONALA SOLDATA-MURRIZKETA PREKARIETATEA KALERATZEAK LANGABEZIA KRISIA SINDIKATUAK LAN-BALDINTZAK BEHIN-BEHINEROTASUNA LANGILEAK ISTRIPUAK HERIOTZA LANUZTEAK ESP

KRISIA | Lantegien estutasuna, beharginek ordain

Bigarren sektorea, hari mehe baten gainean

Krisiak daborduko gorena jo duelako ideia zabaldu gura dute mandatariek. Egia izan edo ez, lantegi batzuek egoera zaila bizi izan dute, eta batzuk oraindik kinka larrian daude. Lan-istripu latzak jazo dira, zenbait heriotza barne.

TESTUA: ZUBEROA ITURBURU ►

Vicrila ixteko arriskua benetan larria da. Leioako Lamiako auzoko lantegi ezaguna hartzekodunen konkurtsoan dago eta fabrikarako eroslerik lortzen ez badu, zuzeneko 300 lanpostu eta zeharkako beste horrenbeste galduko dira, bertako langileek ohartarazi dutenez. Ekonomiaren egoera kaskarrak gurean ere jo du, eta eskualdeko enpresa batzuen egoera ez da batere samurra. Soldata-murrizketak eta kaleratzeak izan dira horietako askotan. Horren guzti horren berri jaso du HIRUKAk.

Vicrila fabrikari dagokionez, sei inbertitzaile interesatu dira azken hileotan beragaz; horietako batzuek berba egiten ari dira lantegiko enpresaburuak. Beharginek, bien bitartean, kalera irten

Soldata-murrizketak eta kaleratzeak izan dira eskualdeko hainbat lantegitan; ixteko arriskuan egon dira batzuk

eta mobilizazioak egin dituzte, bai Leioan, bai Bilbon. Lanpostuak defendatu eta Vicrilako zuzendaritzak bere kudeaketa «ezin txarragoaren» gaineko erantzukizuna hartzeko eskatu dute. Leioako udalbatzak elkartasuna eta babesa eskaini zien beharginei: «Vicrilak 120 urte dauzka eta beti egon da Leioan. Ezinbesteko enpresa da gure udalerrian, ez bakarrik dakarren zuzeneko eta zeharkako enplegu kopuruagatik, urte hauetan denetan udalerrian sortu duen balioagatik ere bai. Hori dela eta, zalantza barik, herritarren ordezkariok enpleguaren defentsa eta Vicrilaren industria-jardueraren aldeko jarrera garbia erakutsi behar dugu». Hartzekodunen konkurtso egoeran ere egon zen Erandioko GES Global Energy Services

LOTAZIOA PATRONALA SOLDATA-MURRIZKETA PREKARIETATEA KALERATZEAK LANGABEZIA KRISIA SINDI

2016ko amaieratik joan den ekainera arte, CL Grupo Industrial taldeak lantegia erosi zuen arte. Enpresako egoitza nagusia da Erandiokoa, eta beharginek soldata murrizketak eta kaleratzeak jasan zituzten erosketa baino lehen.

Altzaga auzoan, kinka larrian egon zen Cables y Alambres Especiales SA enpresa duela urte bi. 2015eko maiatzean, Vicinay eskual taldeak erosi zuen lantegia eta, haren arabera, lanpostua mantendu dute Cables y Alambresen lan egiten zuten 127 beharginek. Halere, langileen lan-baldintza «kaskarrak» eta Vicinayk «inoiz iritsi ez» diren inbertsioak agindu zituela salatu izan du LAB sindikatuak, iaz bertako langile bat lanean ari zela hil eta gero. ◀



Hiru urtean, hamar behargin hil dira lan-istripuetan

2015

Apirilak 27, Erandio
J.A.G.
Befesa

Azaroak 6, Getxo
L.P.H. 46 urte
Autonomoa

2016

Urtarrilak 28, Leioa
J.C.F.V. 57 urte
Servicio de Asistencia
a Instalaciones de
Calefacción SL

Otsailak 10, Erandio
J.I.G.R.Z. 60 urte
Iberdrola Distribución
Eléctrica SAU

Martxoak 5, Armintza
J.M.G.F. 58 urte
Bidezain

Ekainak 28, Erandio
A.V.G. 38 urte
Autonomoa

Uztailak 11, Urduliz
49 urte
Lointek

Irailak 29, Erandio
A.G.O.
Basalan

2017

Urtarrilak 9, Gorliz
A.D.R.J. 24 urte
Mec-Mec

Irailak 20, Erandio
X.F.B. 41 urte
Cables y Alambres

Hamar behargin hil dira 2015 eta 2017 bitartean Uribe Kostan, lan-istripuan: langile bi 2015ean, sei 2016an eta beste bi 2017an. Horiek islatzen dute prekarietatearen alde gordinena, lan-ezbehar larri batzuk gertatu dira eta eskualdean.

Horien artean dago 2015eko martxoan Erandioko Befesa enpresan gertatutakoa: bost behargin zauritu ziren labe baten ondoan lanean ari zirela, eta euretako bat handik hilabetera hil egin zen, erredurengatik.

Beharginen eta sindikatuen protesta ugari eragin dituzte istripuek eta, besteren artean, hautsak harrotu zituen Sopelako Mec-Mec pizzeriako 24 urteko motor-gidariaren heriotzak, orain dela urtebete. Besteak beste, hainbat ezezagunek jatetxeko leiho denak apurtu zituzten bertako langileen «esplotazioa» salatzeke.

Uribe Kostan jazotako azken heriotza 2017ko irailean izan zen: Leioako 41 urteko behargin bat hil zen Erandioko Cables y Alambres lantegian, makina batek harrapatuta.

Gisa horretako istripuek salaketak jasotzen dituzte eta, zenbaitetan, enpresak zigortu izan dituzte. 2017ko otsailean, Lan Ondo Multiservicios-eko administrariari urtebeteko zigorra ezarri zioten, hiru urte lehenago EHUKo Leioako campusean gertatutako istripua dela-eta: behargin bat hil zen liburutegiko teilatutik erorita. CCOO sindikatuak salatu zuenez, «langileak ez zeukan kontraturik eta ez zegoen alta emanda gizarte segurantzaz».

Bien bitartean, urteotan, Sopelan gorazarre egin diete lan-istripuetan hildako herritarrei. Ekitaldia Lan Osasunaren Egunean izaten da, apirilaren 28an. Izan ere, 2010ean hiru sopeloztar hil ziren beharrean zebiltzala.

LEIOA | Kirol azpiegiturak

Pinosolo, zigorra Udalari



Sakoneta kiroldegia zaharkituta dago.

Egin ez zuten Pinosoloko kiroldegiaatik ia 658.000 euroko zigorra ipini diote Leioako Udalari. Hain zuzen ere, eraikuntza-lanak esleitu zitzaizkien Aros eta Viuda de Sanz sozietateei 657.595 euro ordaintzeko agindu zuen joan den abenduan Bilboko Merkataritza Ganberaren Arbitraje Auzitegiak. Erakunde horren erabakiak lehen instantziako sententzia baten balio berbera dauka; halere, horren aurka helegitea aurkez daiteke EAEko Auzitegi Gorenean. Merkataritza Ganberaren Arbitraje Auzitegiaren arabera, Leioako Udalak «alde bakarretik» apurtu zuen Aros eta Viuda de Sanz sozietateakaz zeukan hitzarmena, eta baldintza-pleguetan «aurreikusita zeuden konpentsazioak ez zituela ordainduko» adierazi zuen. Egoera hori izanik, Leioako EH Bilduk Udalari eskatu dio bere eskura dituen errekurtso legal guztiak martxan ipintzeko, «iruzurra» egin zuten enpresei «zentimo bat gehiago ere ez ordaintzeko» helburuagaz. Koalizioaren iritziz, bien bitartean, herriak kirol azpiegitura berririk gabe jarraitzen du, horien «beharra» badauka ere. Egungo Leioako kirol azpiegitura nagusian, Sakoneta kiroldegian, «beharrezkoak diren inbertsioak» egiteko eskatu du aspaldi EH Bilduk. Iazko martxoan, gainera, Udalari adierazi zion kiroldegiko kudeaketa-eredua aldatzeko eta zuzenean beregain hartzeko.

LEIOA | EHUrako tranbia

Zalantzak sortu zaizkie Udaleko agintariei



Tranbiaren kotxe-biltegia aspaldi eraiki zuten metro geltokitik gertu, ibaira bidean.

Metro geltokitik EHUrako joateko tranbiaren egitasmoa kolokan egon daiteke. Leioako Udalak gelditu dauka proiektua, aurkako iritziak direla eta.

Tranbiaren proiektuaren gainean «go-goeta egiten» dihardu Leioako Udalak. Mari Carmen Urbietta alkatearen arabera, auzokide eta merkataritza baten aldetik egitasmo horren kontrako jarrerak «sumatu» dute. Alkateak jakinarazi du EHUrako tranbia abian ipintzeko proiektuari «azken ukituak ematen» ari zaizkiola Leioako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak. Halere, Sabino Arana kaleko auzokideak eta merkataritza egindako bileretan, horietako askok tranbia «mehatxutzat» jotzen dutela esan du. «Horrek gelditzera behartu gaitu, jendea-ri egitasmoa kaltegarria ez dela ikustarazten saiatzeko edo beste aukera batzuk azter-

Auzokideen desadostasuna

Alkateak onartu du kalea aisialdiaz gozatzeko aprobetxatu beharko litzatekeela uste dutela bizilagunek eta saltzaileek. «Sabino Arana oinezkoentzat izan beharko lukeela argi daukagu».

Jaurlaritzaren oniritzia

Eusko Jaurlaritzak 2016ko maiatzean eman zion oniritzia ETS Euskal Trenbide Sarearen eta Leioako Udalaren arteko elkarlanari, Sabino Arana kalea konpondu eta gero, tranbiaren lanak egiteko.

tzeko». Urteak darotza egitasmoak mahai gainean; halere, Eusko Jaurlaritzak 2016ko maiatzaren 31n eman zion oniritzia ETS Euskal Trenbide Sarearen eta Leioako Udalaren arteko elkarlanari, Sabino Arana kalea konpondu ostean, tranbia ipintzeko lanak egiteko. Alabaina, «bizilagunen aurkako iritzia ostean», garraiobide hori baztertu eta egon daitezkeen beste aukeren gainean «hausnarketa egiteko» prest agertu da Urbietta.

Merkatariez gainera, Esnatu Leioak, EH Bilduk eta Auzotik elkarteak eskatu izan diote tranbiaren egitasmoa atzeratzeko, harik eta Sabino Arana kaletik pasatzeari buruzko eztabaida herritarra eta teknikoak amaitu arte. Euren iritziz, tranbia egitea eta kalea oinezkoentzat jartzea «kontrajarriak» dira. Alkateak berak onartu du hori: «Kale horrek oinezkoentzat beharko lukeela argi daukagu Udaleko alderdi gehienok. Tranbiak segurtasun-arazoak ekarriko litzatekeela uste dute leioaztar askok. Gainera, kalea aisialdiaz gozatzeko aprobetxatu beharko litzatekeela uste dute bizilagunek eta saltzaileek». ◀

ARTATZA | Hezkuntza

Betiko ikastola: asmo berriak 50 urte igarota



Urtebeteko lanaren ostean ikastola osoa eraberritu egin dute. © BETIKO IKASTOLA

Berrogeita hamar urte bete zituen Betiko ikastolak 2015ean; urte mordoa, baina ez du loak hartu. Egitasmo berriek ikastolaren itxura aldatu dute: Haur Hezkuntzako azpiegitura berritu eta eraikin berriekin ekin dio ikasturte honi.

O sasuntsu dabil Betiko ikastola aspaldi honetan. 2015ean bete zituen 50 urte eta inflexio puntua izan zela esan daiteke. Handitzen eta handitzen joan da eta, urte gutxian, lerro bakarretik lerro bi izatera pasatu da. Horrenbestez, azpiegitura txiki lotu zaie Betikokoei. Horrek bultzatu ditu ikastola handitzera eta berritzera eta, hezkuntza komunitate «osoaren ahaleginari esker» helburua lortu dute.

Haur Hezkuntzako eraikina erreformatu zuten 2016an, urtetako hausnarketaren ostean, «konfiantzaren pedagogiaren» parametrotara egokituz. Betikoko arduradunek azaldu dutenez, pedagogia eredu horren hel-

DBHrako eta administraziorako eraikin berriak altxatu dituzte; azaroan inauguratu zituzten biak

burua da umeei beren garapenean laguntzea, heldutasunean jendartean partaide izan daitezen daukaten «onena» emanaz. Garapen horretan eragiten duen faktoreetako bat ingurune fisikoa da. Horregatik, arestiko espazio mugatuari, gelari, buelta eman eta ingurune berria sortu dute. Bertan, umeei aukera izango dute beren behar, gura edo interesen arabera mundua ezagutzeko, esperimentatzeko eta ulertzeko. Gainera, irisgarritasuna «bermatzeko» igogailu berria eta larrialdietarako eskailera ipini dituzte.

Horregaz batera, DBHrako eraikin berria ere altxatu dute leioaztarrek; gela berriak eta erabilera anitzeko areto bat egin dituzte. Ikastolaren administrazioa kokatzeko, beste eraikin txiki bat altxatu dute Betikon. Gainerako azpiegiturak ere berritu dituzte, horrela, irisgarritasuna bermatzeko lanak egin, komunak berritu, patioak egokitu eta ikastolako sarrerak zein autobus zerbitzua berrantolatu dituzte. Garai bateko estutasunak iraganda, ikastolaren osasun ona islatzen dute egungo 700 ikasleek. ◀

LEIOA | De Miguel auzia

Kultur zinegotzi ohia epaitzen

Leioako Kultur zinegotzi ohia Iñaki San Juan epaitzen dabilta De Miguel auzian. Mendibile jauregia eta hura kudeatzen zuen sozietatea sumarioan agertzen dira, Errexal (San Juanen enpresa) eta Kataia Consulting-agaz 180.000 euroko zerbitzuak kontratatu zituztelakoan. Fiskalak 19 urteko espetxe-zigorra eskatu du berarentzat.

ARTATZA | Gaztelueta ikastetxea

Sexu-abusuen salaketa

Gaztelueta ikastetxeko irakasle ohi bat Bizkaiko Lurralde Auzitegian epaitzeko erabakia hartu zuten 2017ko hasieran, ikasle bati ustez sexu-abusuak egiteagatik. Duela urtebeteko ebazpenean, «jarraikako sexu-abusu delitua» leporatu zion epaileak eta, horrenbestez, 10 urte arteko kartzela-zigorra eska diezaioke.

LEIOA | Erika Bilbao

Torturak eta epaiketa

2016ko maiatzean epaitu zuten Erika Bilbao eta beste zortzi euskal herritar Madrilen, Ekineko kide izatea egotzita. Akordio bati esker, auzipetu gehienak espetxeratzea eragotzi zuten. Halere, azken horiek, justiziarik ez zela egin esan zuten: «Gogoratu behar da nondik gatozen. Estatuak atxilotu, bortizki torturatu eta espetxeratu gintuen».

TXORIERRI · LAMIAKO | Igogailua

Lanak martxan ipini dituzte

Badirudi, azkenean, Lamiakoko eta Txorierriko auzotarrek laster izango dutela igogailua; aspaldi agindutako egitasmoa da. 2016 amaieran igogailua ipini ahal izateko lanak abiarazi zituzten, eta urbanizatze lanak amaitutakoan, aparailua ipiniko dute. Bizkaiko Garraio Partzuergoak 900.000 euro inbertitu ditu lanak garatzeko.



Artedrama arte eszenikoen plataformak joan den urrian utzi zuen Kultur Leioa; «penaz eta ezintasunez» agur esan zieten leioaztarrei.

Kultur arloak hamaika aurpegi dauzka

TESTUA: ZUBEROA ITURBURU ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Kultur sorkuntzari tarte zabala eskaini dio HIRUKAk, hasiera-hasieratik. Hiru urte hauetan, mugimendu handia egon da alor horretan: berri onak, talde eta sorkuntza-lan berrien agerpena... baita alde ez horren argiak ere.

Sorkuntzaren argi-ilunak jaso dira HIRUKA aldizkariaren orriotan eta agerkari digitalean, urterik urte; berri onak izan dira batzuetan, ez horren gozoak besteetan. Berbarako, Artedrama arte eszenikoen plataformak joan den urrian utzi zuen Kultur Leioa, 2012az geroztik egoitza bertan eduki ostean. Plataformak, orain, enpresa izaera duenez, daborduko lokalik ezin diola utzi adierazi zuen Leioako Udalak. «Eraikin publiko bat ezin da enpresa baten helbide fiskala izan», azaldu zuten agintari leioaztarrek. Halere, Artedramak Leioan egindako lana goraipatu zuten udal-arduradunek.

Oso bestelakoa izan zen arte eszenikoen plataformako kideen ikuspegia: «Zoritxarrez, azken agintaldian ez dugu sentitu bultzada politiko nahikoa, hutsune legalengatik; baina, bereziki, borrontate faltagatik». Udalaren aldetik asetzeko moduko «argumenturik» ez zu-

tela jaso esan zuten Artedramakoek, eta leioaztarrei «penaz eta ezintasunez» agur esan zieten.

Agur ere esan diete musikazaleek kontzertuetarako areto biri azken urte bietan, izan ere, Xurrut eta Sentinel tabernek emanaldiak antolatzeari utzi diete. Erandioko Sentinelek 2015eko ekain aldera iragarri zuen rock-kontzertu denak bertan behera uzteko erabakia. Udal-dekretu baten arabera, aretoak ez zuten betetzen kontzertuak egiteko baldintzarik. 2016 amaieran, oster, Gortizko Xurrut tabernak utzi zion kontzertuak antolatzeari, azken emanaldietan ikus-entzule gutxi hurreratu zelako.

Tabernakaz batera, kultur sorkuntzarako beste agerleku bat galdu zuen eskualdeak 2016ko hasieran: Sopelako Gazte Asanbladak Sekeko gaztetxea ixtea erabaki zuen, hain justu, asanblada bera indartzeko. Bitartean, gaztetxeak ixteko saiakerak zabaldu dira azken ur-



Koldo Serra getxotarrak zuzendutako «Gernika» filma aurkeztu zuten 2016ko apirilaren 26an, Malagako Zinema Jaialdian. ZINEA.EUS

tean. Uztaila hasieran, Erandioko Kalezulo gaztetxea behin-behinean ixteko dekretua sinatu zuen Udalak, «gaztetxeak ez daukalako Joko eta Ikuskizunetako Legearen arabera dagokion jarduera-lizentzia; Ingurumeneko eta Lurreko legeen arabera, ezta ere». Plentziako eta Gorlizko Danontzat gaztetxearen kasuan, berriz, eztabaida piztu zen abuztuan, egoera tekniko-legala zela-eta. Plentziako Indebenteak alderdiak gaztetxeak Udalagaz zeukan hitzarmena betetzen ez zuela salatu zuen. Getxoko Itzubaltzeta gaztetxearen egoera bestelakoa da: eraikina apirilean erre zen. IGAKI Itzubaltzetako Gazteriaren Aisialdi eta Kultur Elkartea eta Getxoko Udalaren Errekaganeko lurzorua eta pabiloien etorkizuna arautuko duen hitzarmena sinatzeko «atarian» omen daude.

ARNAS BERRIA. Etorkizunari begira ere ipini dira Sopelan eta bestelako egitasmoa biziberritu dute: Plaza Beltza. 2017ko apirilaren 31n zabaldu zuten egoitza, «kultur adieraz-

Kulturgune eta kolektibo berriak sortu dira; horrez gainera, sari ugari jaso dute hainbat uribekostarrek

pen berriei aukera eman guran». Getxon ere sortu dute antzeko proiektua, Algortan: 2015ean zabaldu zuten Azebarri, euskaraz bizitzeko «arnasgunea».

HIRUKAK, gainera, beste zenbait talderen eta jaialdiren jaiotza ezagutarazi du. 2015ean, Garrobi sortu zuten Getxoko artistek, bertoko sortzaileen fruitua zabaltzeko. Hurrengo urtean, oster, Sorzain argitaletxe «alternatiboa» jaio zen, euskarazko lanak kaleratzeko asmoagaz. Eta joan zen udan, jaialdi berri bigaz gozatu genuen Uribe Kosta eskualdean: AgorriJazz, Plentzian; eta Munduko Arrozak, Algortan. Bestalde, bere merituz ezagun egin dira eskualdeko hainbat lagun, han-hemen haien lana saritu dutelako. 2015ean, besteak beste, Unai Elorriaga idazle algortarrak 2014ko Espainiako Kritika saria jaso zuen. 2016an, oster, Mitxelko Uranga idazle berangoztarrak Euskadi Saria irabazi zuen. 2017an, Azkenik, Xabi Paya Ruiz algortarrak jardun zuen Donostia 2016 egitasmoaren zuzendari gisa. ◀



«Euskal literatura aspalditik dago sasoi onean»

UNAI ELORRIAGA LÓPEZ DE LETONA
HIRUKA 14



«Ikusleengana heltzen eta hunkitzen saiatzen gara beti»

NATALIA MONJE GOMEZ
HIRUKA 49



«Gazteak xaxatzeko idazten dut saiakera»

MITXELKO URANGA ALVAREZ
HIRUKA 74



«Honen tamainako lana topatzea zail ikusten dut»

XABI PAYA RUIZ
HIRUKA 44

INGURUMENA | Biodibertsitatearen kontserbazioa

Eskualdeko naturari begira: bada

HIRUKA, ingurua ezagutzeko lagungarri



Landare inbaditzaileak

Biodibertsitatearen kontrako mehatxurik handienetakoa dira espezie inbaditzaileak. Eskualdean dauden mota horretako landareez jardun genuen 43. zenbakian.



Onddoak

Gutiziak izan daitezke, baina pozoitsuak ere bai. Uribe Kostan dauden perretxikoak ondo bereizten laguntzeko gida argitaratu zuen Getxoko Basozaleak taldeak 2017an.



Sendabelarrak

Uribe Kostako sendabelarren gaineko ikerketa egin zuen Josu Aurrekoetxea algortarrak 2015ean. HIRUKAren 16. zenbakian egin genuen berba haregaz.



Gizakiak hartutako inguru denetan legez, Uribe Kostan ez da falta faunari eta landareei kalte egiten dien faktorerik. Hala ere biodibertsitate aberatsa dugu inguruan, ahulguneak ahulgune.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ►

Batzuetan Uribe Kostaren izena Ibaizabal ertzeko gune urbanizatuakaz lotu arren, berdea da nagusi gure eskualdean. Are gehiago, naturgune ugari gorde da itsasadarrari begira dauden udal handietan ere. Horren lekuko, berbarako, HIRUKAren 55. zenbakian argitaratutako *Getxoko fauna, bizi-bizirik* erreportajea. Xabi Buenetxea ingurumen-teknikariaren ahotik, Uribe Kostako udal handienak oraindik man-

Hegazti-populazio interesgarriak dauzka Uribe Kostak, migrazio-bideen erdian egoteari esker

tentzen duen bioaniztasunaren berri jaso genuen. Egoera ona dela adierazi zigun Buenetxeak, baita gaineratu ere fauna basatia ikusteko leku egokia dela Getxo.

Dena hobetu daiteke, noski; Getxoren eta eskualdeko beste gune askoren kasuan, urbanizazioa eta industrializazioa dira biodibertsitatearen aurkako mehatxurik handienak. Baina ez bakarrak. Espezie inbaditzaileek eragindako gaitzak aipatu behar dira alde bate-tik (Uribe Kostan dauden gaineko erreportajea argitaratu genuen 2015eko abenduan), korridore naturalen desagertzea bestetik. Xabi Buenetxeak esan zigunez, «ohitura dago nongura egiteko pertsonak ibiltzeko bideak, ingurua lorategia izango balitz bezala»; horrek animalien berezko pasabideei mugak ipini eta euren mugikortasuna murrizten du.

go arnasgunerik zementu artean



ARGIAK ETA ITZALAK. Zelangura, animalia-espezie ugariaren bizilekua da Uribe Kosta. Getxon 200 identifikatu izan dira, esate baterako. Besteak beste, hegazti-populazio interesgarriak dauzka Uribe Kostak, batik bat itsadasarretik hurreko eremuetan, migrazio-bideen erdian dagoelako eta habitat mota asko dituelako. Katebegi ahulena, berriz, anfibioena da. Animalia-klase hori ei da habitat baten osasuna neurtzeko erakuslerik onea, aldaketa sakonak daudenean galtzen den lehena delako. Zoritxarrez, hainbat anfibio mota desagertu edo ia desagertu dira Getxon, Buenetxearen berbetan.

Beste muturrean daude eremu urbanizatueta bizitzen ikasten dutenak. Uribe Kostan lukia da adibide nagusienetakoa. Jendearengandik hur egoten ohituta dute, eta gero

eta sarriago ikus daitezke eskualdeko gune populatueta.

LANDARE-GIDA, KALTEGARRIAK BEREIZTEKO. Natura dagoen lekuan, ezin naturzaleak falta. Mende laurdenetik gorako ibilbidea dauka Getxoko Basozaleak elkarteak, eta beste egiteko batzuen artean landare-gidak argitaratu izan ditu azken urteotan. Horietako bat 2017ko udaberrian eman zuten argitara, eta inguruko 79 perretxiko mota eta bestelako 71 landare deskribatzen ditu, txangoan eroateko moduko liburuxkan. Halan, erabiltzaileek onddo jangarriak eta pozoitsuak bereizi ahal izango dituzte, baita belar batzuei zer erabilera eman ikasi ere. «Landare eta perretxiko denak jan daitezke, baina batzuk behin baino ez», gogorarazi ziguten. ◀



Basa-bizitzari bultzada ematen

Apo lasterkaria duzu goiko argazkiko laguna. Seguruenik informazio horrek ez zaitu bereziki hunkitu, baina jakizu, daborduko ez bazenekien, euskal kostaldeko leku bitan baino ez dela bizi anfibio-espezie berezi hori. Txingudiko badia da bata; bestea, Uribe Kostako itsasertza. Gureari dagokionez arazo ugari eduki ditu, baina konpontzeko bidean daude. ‘Prestige’ petrolio-ontziaren hondoratzea izan zen apo lasterkariaren buruhausteen jatorria, ez zuzenean, zeharka baino: Gorrondatxe hondartza inguruan bizi zen espeziea, eta galipota garbitzeko hara jaitsitako kamioiek hondatu zituzten apoek arrautzak ipintzeko prest zeuzkaten putzuak. Arazoari aurre egiteko, beste putzu batzuk sortu ziren Uribe Kostako itsas-labarren inguruan. Honenbestez Barinatxe hondartzara aldatu da apoa, eta martxan dago hura babesteko programa bat, besteak beste Sopolako Udalak izenpetua.

BERRESKURATZE SAIOAK. Hain zuzen ere, Sopolan egin da naturaren kontserbaziorako beste ekimen bat: Ingesta ingurua-
ren eraberritzea, 2015ean hasitakoa. Gizakien esku-hartzearen eraginez (aparkalekua egon zen han) sano degradatuta egon da Atxabiribil hondartzaren gaineko gune hori. Jatorrizko landaredia atzera ipiniz egin zuen Udalak ingurua lehengoratzeko saioa. Eta kontserbazioaren eremuan, ezin ahaztu Uribe Kostan dagoela esparru horretako Bizkaiko zerbitzu garrantzitsuenetakoa: Fauna Basatia Osatzeko Zentroa, 1999tik Gorlizan dagoena. 2015ean egin genien bisita, eta han ikusi eta ikasitakoa kontatu genizuen HIRUKAren 37. zenbakian.

SOPELA | Piromanoa

Edukiontzietatik, erre usaina



13 edukiontzi erre ziren 10 egunean.

Sopelako udaltzainak zoratzear ibili dira azken urteotan zaborren edukiontziak erretzen zituen ezezagun baten atzetik. 2017ko urtarrilean, hamar egunean hirutan atxilotu zuten gizon bat, ustezko erretzailea izatea egotzita. Hamahiru edukiontziri su emateaz gainera, hainbat ibilgailu eta etxebizitza kaltetzea leporatu zioten orduan; horrez gainera, aurreko urte bietan aurrekari ugari zeuzkan, antzeko delituengatik. Joan den urte hasieran eragindako kalteak 1.452 eurokoak izan ziren, udaltzainen arabera, baina, denera, 35.000 euroko kalteak eragin izana egotzi zioten.

SOPELA | Plaza Beltza

Plaza Beltzaren gune berria

Kultur adierazpen berriei aukera eman gura diete Plaza Beltza elkartekoek eta, horretarako, egoitza berria zabaldu dute, non eta Larrabasterrako Loiola Ander Deuna kaleko 40.ean. 2009an, liburutegi politiko eta soziala zabaldu zuten Akilino Arriola kalean, baina 2013an itxi zuten. Asmo berriakaz datoz orain. «Aurreko egoitza itxitakoan ondorioztatu genuen bestelako lokal bat behar genuela; bestelako kultur esparruetara heltzeko aukera ematen digu egoitza berriak», azaldu zuten Plaza Beltzakoek. Hein batean, Sekeko gaztetxeak utzitako zuloa betetzera dator gune berria. Sekeko 2016ko udan itxi zuen gazte asanbladak, eraikina mantentzearen zama arindu eta indarrak lan sozial, kultural eta politikoa egitera bideratzeko asmoagaz.

SOPELA | Zipiriñen, leku faltan

Ikasturtea barrakoian egiten dabilta umeak



Zipiriñe ikastetxeko jolaslekuan ipini zuten ikasleentzako barrakoiak, ikasturte honen hasieran.

Estu daude Zipiriñe eskolako ikasleak: ume asko, baina leku gutxi. Gurasoak mobilizatzen hasi dira erakundeek arazoa konpon dezaten eskatzeko.

Hezkuntza-zentroak daukan leku faltari aurre egin guran, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak barrakoi bat instalatu zuen joan den urriaren akabuan Zipiriñeko jolaslekuan. Gurasoek, oster, leku «egoki» bat gura dute eskolako 900 umeentzat eta, ondorioz, Iraupen gurasoen elkarteak ZipiZutik izeneko ekimena hasi du. Lehen mobilizazioa joan den abenduan izan zen, «Barrakoirik ez!» lelopean.

Aukera baliatu zuten arazoa sopoloztarraren artean ezagutarazteko. «Zipiriñek 40 gela izan beharko lituzke, baina 44 dauzka. Ordainean, beste hauek galdu ditugu: erabilerako anitzeko gela bi, laborategi bat, hiz-

900 ikasle

40 talderentzako lekuan, 44 dauzkate Zipiriñen. Ordainetan, beste erabileretarako gelak galdu dituzte: laborategi bat, ikus-entzunetarako gela bat, erabilerako anitzeko gela eta hizkuntzen gela bat.

ZipiZutik

Iraupen Zipiriñeko gurasoen elkarteak ZipiZutik dinamika abiarazi du, umeentzako leku «egoki» bat gura baitute. Abenduaren lehenean mobilizazioa egin zuten Sopelan, «Barrakoirik ez!» goiburuaren pean

kuntzen gela bat eta ikus-entzunetarako gela bat». Gurasoek diotenez, «janlekuko gunea ere gaindituta dago: bi orduan 750 ikaslek jaten dute, hiru txandatan. Azken txandako ikasleek txirrinak jotzen duenean amaitzen dute. Sukaldea oso txikia da eta zaintzaileen aldagela txikiegia. Euria egiten duenean, estalita dagoen zelaian 500 ume batzen dira, hau da, areto-futboleko zelai biren tamainako eremuan». Leku faltak, gainera, «beste eragin kaltegarri batzuk» ere badauzka, gurasoen elkartearen arabera, eta seme-alaben hezkuntzaren «kalitateari eragiten» dio.

Sopelako Udaleko oposizioeko alderdiek hainbat proposamen aurkeztu dituzte, baita Udal Gobernuak ere. Azken unean proposamen berri bat eskaini du, Zipiriñeko gurasoen elkarteak azaldu duenez: Udalak lursail batzuk saltzea erabaki du, lursail egokiagoak erosteko; bertan insitutu berria ipiniko lukete, Iberre Institutuak leku arazo berberak ditu-eta. Baina gurasoek zalantza daukate: «Gauza bat proposatzea da, eta, beste bat proposamen horiek gauzatzea». ◀

SOPELA | Zuntz optikoa ekarri dute AEBetatik, itsasoaren azpitik

Urrutitik dator kablea

Sopela eta AEB lotu zuten itsaso azpitik, zuntz optikodun kable baten bidez, 2017ko irailean. Munduan datuak transmititzeko ahalmen handiena dauka eta «Marea» izena ipini diote. Microsoft eta Facebook enpresek egin dute, eta Telefonicarenen Telxius filiala arduratuko da bere kudeaketaz. Atlantiko osoa zeharkatu du, urpetik; hau da, 6.600 kilometroko luzera dauka. 2017ko ekainean lotu zuten Arriatera hondartzan, horren ostean eta apurka-apurka, AEBetaraino eroateko; pare bat hilabete bidaia izan zen, eta Sopelan astebete behar izan zuten kablea hondarrean egindako zulo batean finkatzeko.

«Marea» hodiak zuntz optikodun zortzi kable pare dauzka barruan, eta segundoko 160 Tbps igor ditzake. Indar horri esker, segundoko 100.000 milioi txio eta 4.000 DVD transmititzeko gaitasuna dauka. Beraz, Interneten nabigatzeko abiadura handia, hodeirako sarbide ziurra, eta Microsoften eta Facebooken zerbitzua linean eskaintzen ditu.

Ez da ozeanoa zeharkatzen duen lehen hodia. Gainerako kableak baino hegoalderago kokatu dute, eta, beraz, lehenengoz lotu ditu Europa hegoaldea eta AEB. Arriatera aukeratu zuten kablea finkatzeko baldintzak betetzen zituelako: itsas-hondoak sakonera handia dauka itsasontzia gerturatu ahal izateko; eta hareatzak sarbide leuna dauka.

Hodiak 3 eta 15,5 zentimetro arteko lodiera dauka. Bitxia badirudi ere, leku sakonenetan da meheagoa, proiektuko arduradunek azaldu zutenenez, bertan ez duelako behar hainbesteko babesik. Zuntz optikoak daroa-



2017ko udaberrian Arriatera hondartzara ekarri zuten zuntza.

Zuntz optikoak 100.000 milioi txio eta 4.000 DVD transmititzeko gaitasuna dauka

tza barnean, oso meheak; ile baten lodiera-koak. Gainerakoa babeserako materiala da; polietilenoaz eta kobrez inguratuta daude iletxoak. Itsas-hondo gainean kokatu da kablea, batez beste, 4.000 metroko sakonera.

PUNTAKO TEKNOLOGIA. Telxius enpresak kudeatzen du zuntza eta, bertako operazio zuzendariaren iritziz, «mugarri historikoa» izan da Sopelan hasitako ekimena. Urpeko kableen alorrean puntako teknologia erabili dela jakinarazi zuen bere garaian, baina hodia finkatzea oso konplexua izan zela: «Urteetako ikerketaren eta hilabete luzeetako lanaren emaitza da». ◀

SOPELA | Zentsurari aurre eginez

Preso baten eskulturak

Zigor Merodio bilbotarraren «Aldharrikatuz» erakusketa Kurtzio kultur etxean egon zen ikusgai, 2016ko maiatzean. 2015eko azaroan, esposizioa egiteko baimena ukatu izana egotzi zion EH Bilduk Udalari. 2016ko azaroko osoko bilkuran esposizioa egitea onartu zuten oposizioeko alderdi politikoei.

SOPELA | Pediatra euskaldunik ez

Urte eta erdi eskatzen

Urte eta erdi bere alabarentzako mediku euskalduna ipintzea eskatzen ibili ostean, 2016ko irailean erantzun zioten Osakidetza arduradunek Miren Loizaga sopolotarrari. Adierazi zutenenez, «beranduenez 2017an» ipini behar zuten umeentzako mediku euskalduna; Sopelan.

SOPELA | Udal-euskaltegia

Kexa larriakaz amaitzeko

Sopelako euskaltegia erakunde autonomoa izatea uztea erabaki zuen Udalbatzak, aho batez, 2017ko apirilean. Ugariak eta oso larriak ziren hizkuntza-zentroaren funtzionamenduaz jasotako kexak; baina, Udalak ezin zuen ezer egin, «erakunde autonomoa zelako».

KURTZIO LAGUNA
EGIZU KURTZIO LAGUNA TXARTELA!



KURTZIO LAGUNA TXARTELA EGINEZ GERO,
ABANTAILAK IZANGO DITUZU KURTZION ANTOLATUTAKO KULTUR PROGRAMAN.

ABANTAILAK:

- 5 gonbidapen ordainpeko ikuskizunetan
- Gonbidapenak eskuratzeko lehentasuna
- Programazioaren informazio zehatza

URTEKO TXARTELAREN PREZIOA:

- 10 € (Sopelako biztanleak)
- 15 € (Sopelako biztanleak ez direnak)
- Doan (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenak)

IZEN EMATEAK:

Formularioa bete eta Kurtzio Kultur Etxean, Udaletxean edo Sopelariñen emait.

K U
R T Z
I O L
A G U
N A

Kurtzio Kultur Etxea



URIBE KOSTA | Kirolariak eta klubak

Gure txapeldunak dira, galdu zein irabazi



Goiherri sokatira-taldeari sekulako harrera egin zioten 2015eko irailean, Europako Lur Gaineko Sokatira Txapelketa irabazi ostean.

Azken hiru urteotan, bere horretan segitu dute eskualdeko kirolari lotutako tendentziek: emakumezkoek bidea egiten jarraitzen dute, apurka-apurka; eta babeserako dirua urria da.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Parekidetasunera hurreratzeko, 2015-2016 denboraldian Getxo Igeriketa Waterpolo Klubak erronka berezia ipini zion bere buruari: waterpolo-atalean emakumeen talde bi ateratzea; gazte eta senior kategorietan talde bana, alegia. Aurretik, kategoria txikietan zebiltzan emakumezkoak, eta horiek talde mistoetan lehiatzen ziren. Joera hori izan dute azken urteotan eskualdeko hainbat klubek. Euretako bat izan da Getxo Rugby Taldea. Bertako emakumezkoek kanpaina bat egin zuten joan den ekainean, jokalaria berriak lortu eta taldea bikoiztu ahal izateko. Errugbia Plazara ekimena eroan zuten udalerriko hainbat gunetara, «errugbia astakiloentzako kirola» aurreiritzia gezurra dela frogatzeko.

Bestalde, hainbat klubek euren jarduerak baldintzatuta ikusi dituzte diru-gabeziagatik, nahiz eta Uribe Kostako udalek, Aldundiak eta Bizkaialde Fundazioak ahalegin ekonomiko handia egin. Kasu nabarmenetako bat izan zen Askartza B waterpolo-taldearena, 2015eko ekainean. Klubak uko egin behar izan zion Espainiako Waterpolo Ligaren Bigarren Mailan jokatzeari. Talde leioaztarrak jakinarazi zenez, Udala eta hainbat enpresa kontsultatu zituen, eta egiaztatu zuen ez zuela diru nahikorik aurrekontua orekatzeko. Aurretik, Askartza Bk Hirugarren Mailako Txapelketa irabazi zuen.

Gertuko etorkizunean, oster, hainbat erronka ditu eskualdeak; Getxo udalerrian izango dira nabarmenenak: Espainiako Vueltaren



«Euskal txirrindularitza larri zaurituta dago, hiltzorian»

MIGUEL MADARIAGA BARINAGA
HIRUKA 6



«Mundialak sokatira suspertzeko balioko du»

JONE ZARRAGA EGUZKITZA
HIRUKA 16



«Guk irabaztekotan, gabarra atera beharko litzateke; tradizioa da»

GARAZI MURUA ASTORKIZA
HIRUKA 48

etapa bat 2018ko irailaren 12an; eta Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa, 2020an. Vueltari dagokionez, etapa Getxo Kirol Portuko gurutze-ontzien terminalean hasiko da, Arriluze pasealekutik eta Bizkaiko Zubitik segitzeko. Arriluzekoa ibilbide ezaguna da, Getxoko Zirkuituak urtero urratzen baitu. Getxoko etapa Oiz mendian (1.019 metro) amaituko da, orain arte Vueltak urratu ez duen gainean. Imanol Pradales foru-diputatuak azaldu zuenez, Getxon etapa baten hasiera kokatzean, Frantziako biran pentsatu zuten: «Vueltako etapa batek laguntzen badu Tourra etortzen, egingo dugu».

Sokatira-txapelketaren kasuan, 2015ean finkatu zuten Getxo egoitza, Jone Zarraga Euskal Herri-Kirol Federazioko ordezkariak defendatutako proiektuari esker. Sokatira-selekzioa ofiziala denetik Euskal Herrian egingo den lehenengo mundiala izango da: «Ofizialak izaten lagundu diguten herrialde denei eskerrak eman gura» zizkietela azaldu zuen erandioztarrak, Suediako Malmö hirian Nazioarteko Sokatira Federazioak (TWIF) egindako kongresuan. Mundiala Euskal Herrira eta eskualdera ekartzea harro egotekoa bada ere, bertako sokatira-taldeak astintzeko baliatu gura dute, egoera ez baita ona. Berbarako, joan den urrian denboraldi berriko entrenamenduei ekin zien Goiherri sokatira-klubeko emakumezkoen taldeak. Bost lagun hurreratu ziren aurreneko entsegura, eta goma eta lur gaineko lehiei erantzuteko gutxienez hamarrek taldea behar zuten: «tiralari berrien premia larrian gaude», azaldu zuten.

Goiherrikoak ez dira arazo hori duten bakarrak. Urdulizko Iparralde sokatira-taldeak ez du parte hartuko 2018ko Goma Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketan. 2015ean, azkenak geratu ziren puntu bakarragaz. Jose Luis Goirigolzarri Iparralderen entrenatzaileak argi azaldu zuen: «ez geneukan esperantza handirik, hain gutxi izanda. Urdulizen antzinako kirola da, baina orain jende gutxi gaude, eta horrelakoetan dena irteten da txarto». ◀

Kirolariak, Uribe Kostako enbaxadorerik onenak

Azken hiru urteotan, mundua zeharkatu dute eskualdeko hamaika diziplinatako dozenaka kirolzalek. Euretako askok kontuan hartzeko balentriak lortu dituzte, mundu- edo kontinente-mailan, zein kontu berezietan. Uribe Kostako jende ugarentzat erreferente bilakatu dira.



ASIER GARCÍA
SASKIBALOIA
Txapeldunorde Joko Paralinpikoetan



MARÍA LÓPEZ DE EGUILAZ
HOCKEY
Diploma Olinpiar Jokoetan



ROCÍO YBARRA
HOCKEY
Diploma Olinpiar Jokoetan



BÀRBARA PLA
ERRUGBIA
Diploma Olinpiar Jokoetan. Europako txapelduna



MARCOS MORALES
ARRAUNA
Txapeldun Munduko Ergometro-arraun Txapelketan



OSKAR MARTÍNEZ
KAYAK-SURFA
Txapeldun Munduko Kayak Surf Txapelketan



MIKEL BILDOSOLA
IGERIKETA
Txapeldun Munduko Igeriketa Txapelketan



HIGINIO RIVERO
PARAKANOA
Txapeldun Munduko Parakanoa Txapelketan



JORGE CAMIÑA
TENISA
Txapeldun Munduko Beteranoen Tenis Txapelketan



XABIER PEREDA
KARATEA
Txapeldun Munduko 21 urtez azpiko Karate Txapelketan



ALAZNE AURREKOETXEA
SUP
Txapeldunorde Munduko paddle-surf txapelketan



NAIOMI MATTHEWS
WRESTLINGA
Europako Grappling-gi txapeldun eta munduko txapeldunorde



JONATHAN CASTROVIEJO
TXIRRINDULARITZA
Txapeldun Europako Erlojupeko Txapelketan. Munduko Erlojupeko Txapelketan hirugarren



EDER GOMEZ
KICK-BOXINGA
Brontzea Munduko Kick Boxing txapelketan



URTZI IGLESIAS eta JON ANDER ARAMBALZA
ATLETISMOA
Hirugarren Munduko Raid Txapelketan



JON SALVADOR
ATLETISMOA
Zinta gaineko erreleboko maratoi mistoaren munduko errekor-egilea



GOIHERRI
SOKATIRA
Txapeldun Europako Lur Gaineko Sokatira Txapelketan



AGURTZANE DOMINGO
IGERIKETA
Txapeldun Europako Igeriketa Txapelketan



EKAITZ PINTADO
KARATEA
Txapeldun Europako Karate Txapelketan



JON ZABALA
ERRUGBIA
Txapeldun Europako 19 urtez azpiko Errugbi Txapelketan



MAGDALENA MUSONS
IGERIKETA
Txapeldunorde Hego Amerikako Igeriketa Txapelketan



CHLOE TRACY
JIU-JITSUA
Txapeldunorde Europako Brasildar modalitateko Jiu-jitsu Txapelketan



ANER LA CRUZ eta IÑIGO CASABELLA
SOKATIRA
Txapeldunorde Europako Lur Gaineko Sokatira Txapelketan



EDUARDO PORSET
IGERIKETA
Brontzea Europako Igeriketa Txapelketan



JON RAHM
GOLFA
Europako golf-jokalari berririk onena



GARAZI SANCHEZ
SURFA
Bigarren WSLko Europako QS sailkapenean



LETICIA CANALES
SURFA
Hirugarren WSLko Europako QS sailkapenean



GARAZI MURUA
FUTBOLA
Txapeldun Futbol Ligan



MADDI TORRE
FUTBOLA
Txapeldun Futbol Ligan



LEIRE ETXANIZ
PILOTA
Txapeldun Banakako Lau t'erdiko Emakume Master Txapelketan



NICK LAMB
SURFA
Txapeldun Galeako Olatu Handien Txapelketan

Uribe Kosta, historiaurreko agerlekua

Barrikako flysch silexak eragin handia izan zuen historiaurreko gizakiarentzat. Iñaki Libano barrikotarrak 35 urte darozta garai hartako puzzlea osatzen, eta 65 aztarnategi aurkitu ditu eskualdean, Behe Paleolitotik erromatarren garaira arteko piezak batzen dituztenak. Libanoren aurkikuntzak azpimarratu beharrekoak dira, aztarnategi ugari aurkitu baititu orain arte detektatu bako hainbat eremutan, barbarako: Aranbaltza, Arrizabala, Arriaga, Gane eta Errementariena, Barrikan; Mendiondo, Urdulizen; Landaluze, Arrietara eta Moreaga, Sopelan; Urtxubi, Larrondo eta Artzubiaga, Berangon; Azkorri eta Kurtze, Getxon; eta Kurkudi, Aretxabaleta eta Mendibarrena, Leioan. Eskualdean aurkitutako pieza zaharrenak Moreagan berreskuratutako kuartzita-harri landuak dira; Behe Paleolitokoak, orain dela 250.000 urtekoak.



Geologikoki interes handiko guneak ditugu

Eskualdean badaude ikusgarriak diren hainbat gune, barbarako Barrikako labarrak eta Astondoko duna-fosilak. Horiek denak, gainera, milioika urteko historia kontatzen dute. Hori dela eta, gure eskualdea aukeratu zuten Bizkaiko Geolodia 2016 egitasmoa antolatzeke. Uribe Kosta ez dago geologikoki interes txikiko gunerik eta Geologia Interesdun Lekuak sailkapena duten 14 gune daude. Gainera, Gorrondatxe hondartzako arroketan eskala geologikoaren garai biren arteko muga ezagut daiteke; mundu osoko erreferentea da hori.



Iragan arras iraku

**Eskualdean askotariko harria
Batzuk naturak sortutakoak
kontatzen dute; beste batzuek**

TESTUA: IKER RINCON MORENO ▶



naren stoak urtzen

k aurki daitezke han eta hemen.
k dira, eta geologiaren historia
k, ordea, gizakiaren eboluzioa.

ARGAZKIAK: HODEI TORRES




Aranbaltza aztarnategian barrena

U ribe Kosta aztarnategi erraldoia dela dio Joseba Rios arkeologo algortarrak. Azaldu duenez, historiaurreko askotariko garaien aztarnak aurki daitezke eskualdean, Behe Paleolitotik aurrera. 65 aztarnategitik gora daude katalogatuta Uribe Kostan, hala ere, denen artean nabarmentzekoa da Aranbaltzakoa.

Labar-artearen erakusleihorik handiena

D iego Garate arkeologo plentziarrak azaltzen duenez, «Euskal Herrian betidanik egon da hutsune bat, labar-arteari dagokiona». Kantauri aldean eta Pirinioetan, kobazulo asko dago, eta «ezinezkoa» zuten ikertzaileek azaltzea zergatik ez ziren historiaurreko margo horiek aurkitzen gurean. Orain dela hamar urtetik hona, baina, «hutsune» hori betetzen hasi dira, Askondo (Mañaria, Bizkaia), Aizbitarte (Errenteria, Gipuzkoa) edo Lumentxa (Lekeitio, Bizkaia) kobazuloakaz. 2016an, gainera, Garatek zuzendutako ikerlari-taldeak beste aztarnategi bat aurkitu zuen Berriatuko Atxurra kobazuloan. «Garrantzi handiko aztarnategia da, santutegi handia».



© BFA

Antropozenoa; garai geologiko berrian gaude?

A lejandro Cearreta EHuko ikertzaileak eta nazioarteko beste 37 adituk uste dute garai geologiko berri batean murgilduta gaudela: Antropozenoan. Garai geologiko berri baten proposamena da hori. Horren arabera, geologiaren eraldaketaren oinarritzko elementu bihurtu da pertsona, lurzorua moldatzeko gai dena. Antropozenoaren hasiera XX. mendeko erdialdean kokatzearen alde dago Cearretaren lantaldea; Bigarren Mundu Gerraren ostean, «gizakiaren geologia globala eta sinkronikoa ematen hasten delako». Horren ebidentzia argia aurkitu dute Getxon, Tunelboka hondartzan. Antropozenoko erregistro «oso interesgarria» du horrek, izan ere, material artifizialez osatutako biltegi naturala da hareatza hori.



BERANGO | Berango Kantari

Udalerria kantaz biziberritzeko



Askotariko auzokideak batzen ditu egitasmoak.

Kalean abesteko ohitura berreskuratzeko saiakera egin zuten hainbat auzokidek 2017ko martxoan. Orduantxe hasi zen Berango Kantari egitasmoaren ibilbidea, eta indarrez beteta ibili da urte osoan. Horren helburua da, kantatzeaz gainera, udalerriko adin eta izaera ezberdinetako bizilagunak batzea eta elkar ezagutzea. Hainbat alditan elkartu dira, hilez hileko azken barikuetan, udalerriko erdigunea eta auzoak kantuz alaitzeko. Gainera, euskalgintzan oinarritutako ohiko abestiak batzen dituen kantutegiak ere argitaratu dituzte.

BERANGO | Gazte Mahaia Berango

Gazteentzako ekimenak sortuz

Berango «gazteago» bat sortu guran, Gazte Mahaia Berango taldea osatu zuten udalerriko hainbat neska-mutil gaztek. Udalgaz elkarlanean, 2016an ekin zioten bide horri, eta ordutik askotariko jarduerak antolatu dituzte hasierako helburu hori lortzeko. Besteak beste, gazte ekintzaileen topaketa, Europako gazteen arteko topaketak, Italiara trukean joateko bidaia, askotariko jaialdiak eta hainbat ikastaro antolatu ditu egitasmo horrek bi urteotan. Udalerrian bertan, Ubao bideko 29 zenbakian dagoen Stay and Job eraikina askotan baliatu dute ekimen horiek egiteko. Bertan, Berangoko eta inguruko hainbat neska-mutil gazte bizi dira; gainera, proiektu ezberdinak garatzeko lekua eskaintzen du eraikinak.

BERANGO | Jarduera ekonomikoak garatzeko gune berria

Onura ala kaltea?



Landaida Goikoa sektorean jarduera ekonomikoak garatzeko gune bat ezarriko zutela jakinarazi zuen 2015aren hasieran Berangoko Udalak. Horretarako, inguru horren Plan Partziala onartu zuten, bertan ezarri gura duten iniziatiba denak martxan ipini ahal izateko. Horretarako interesa agertu zuten lehenengo enpresak Mercadona supermerkatu-katea eta Decathlon arropa-denda izan ziren. Gerora, Burger King hanburgesa-dendak eta Lidl supermerkatu-kateak ere bertan egon gura zutela jakinarazi zuten. Hasiera batean, Mercadonak izan behar zuen bertan ezartzen lehena (2018 hasieran zabalduko dute azkenean); hala ere, Burger King eta Decathlon dendeak hartu zioten lekua. Horietan bietan, lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak egin dituzte udalerrian. Azpiegitura komertzial osoak 84.000 metro koadro ditu; horietako 24.500 metro koadro berdeguneak eta aparkalekuak izango dira; eta beste 50.700 metro koadroetan eraiki ahal izango da.

ALDEKOAK ZEIN KONTRAKOAK. Berangoko Udalak proiektuaren berri eman zuenetik, aldeko zein kontrako iritzia egon dira han eta hemen. Hainbat auzokidek eta dendarik euren ezinegona agertu dute merkatalgune berri horren zabaleraren aurrean, dendari txikiengan eragin negatiboa izango duelakoan. Eskualdeko EH Bilduk ere proiektuaren kontra jo

Burger King katea eta Decathlon arropa-denda izan dira bertan ezartzen lehenak

Merkatalgune berriak dendari txikiengan eragin negatiboa izango duela deitoratu dute

Proiektua «aukera» bat dela uste du Udalak, bai lanpostuengatik zein erraztasunengatik

du hainbatetan, eta 2016ko azaroan merkatalgunearekiko «erabateko desadostasuna» agertu zuen. Proiektu horren atzean daudenek eskualdeko herrien bizitza «hipotekatuko» dutela ohartarazi zuten, «bertoko bizitza sozial eta kulturala desagerraraziz». Horrez gainera, merkatalgune horrek sortuko duen lana duina ez dela izango deitoratu zuten. Koalizio abertzalearen jarrerak Anabel Landa Berangoko alkatea harrituta utzi zuen: «Lurralde Zati Plana behin betiko onartzeko Udalbatzara eraman genuen bozketa 2014ko abenduan, eta EH Bildu abstenitu egin zen. Horregatik, ez dut ulertzen noiztik duten desadostasun hori, orain arte ez baitute jarrera hori agertu, Udalean behintzat». Proiektua bertako auzokideentzat «aukera» bat izango dela ohartarazi zuen alkateak, «bai lanpostuen aldetik zein eragingo duen erraztasunaren aldetik ere». Era berean, ziurtatu zuen proiektuak ez dituela «inola ere» udalerrian lanpostuak kenduko.

Bestalde, obrak martxa hartzen hasi zirenean, Edestiaurre Arkeologi Elkartek ohartarazi zuen askotariko material arkeologiko aurki zitezkeela inguru horretan, eta ez zegoela arkeologia-inpaktu txostenik egin da bertan. Handik gutxira, aldiz, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi zuen obrek «ikuskaritza arkeologikoa» izango zutela, inguru horretan 130 pieza aurkitu zirela baieztatu ondoren. Halere, horiek denak «interes gabeak» zirela azaldu zuten. ◀

BERANGO | Hirigintza

Herria itxuraldatzen

Hiru urteotan udalerria eraberritzeko hainbat proiektu garatu ditu Udalak, berbarako Arene industrialdea urbanizatzea, jolasguneak modernizatzea eta Sabino Arana zaharberritzea.

Askotariko lanak egin dituzte udalerrian ingurua eraberritzeko hiru urteotan. Areneko industrialdea izan zen lehena; Udalak ia milioi bateko inbertsioa egin zuen 2015ean eremu hori urbanizatzea. Lanon bitartez, zerbitzuak on-tzeaz gainera, udalerriko «irudia» hobetzea izan zuen helburu Udalak.

Umeentzako lau jolasleku ere hobetu zituen Udalak, 2016an. Moreagan, denera, sei zabu hartzen zituzten elementu bi kendu, eta trebetasunerako berri bat gehitu zuten, sokak eta pasaguneak dituen, erabiltzaileen adin-tartea handitzeko. Lauza-zoladura ere aldatu zuten eta kautxuzkoa ipini. Lantzarten, oster, zabu eta txirrista bana aldatu zituzten, eta kulunka berria ipini baita ere. Era berean, aparatu zaharren malgukiak ordezkatu zituzten. Axganeke Ricardo Otxoa parkean ere zabuak kendu eta berriak ipini, eta trebetasun-jokoa ipini zuten. Azkenik, Berangoeta kultur etxearen atzealdeko parkean ere aldaketak egin zituzten. Denera, elementuak ordezkatzeko gastua 64.000 eurokoa izan zen; kautxu-lurzoria hobetzeko inbertsioa, berriz, 13.000 eurokoa.

Gainera, Moreagako parkea estali zuten, prozesu-parte hartzaile baten ondoren. Eki-men horretan 112 auzokidek parte hartu zuten eta, denera, 236 ekarpen egin zituzten. Hala, besteak beste, inguruko argiteria hobetu, estalgune desmuntagarria ipini eta hormigoizko banku berriak ipini zituzten bertan. Auzokideek aurkeztutako beste hainbat proposamen aztertuko zituela ere agindu zuen Udalak. Icaza jauregiaren aurrealdean dagoen ornamentazio-iturria ere martxan ipintzeko lanak iragarri zituzten iaz, 2017an. Horretarako, 32.000 euroko inbertsioa egin behar izan du Udalak. Arduradunek azaldu zuten, interes arkitektonikoa duen iturria da hori, eta babestuta dago. Horrez gainera, oinezkoentzako zazpi pasabide ipini zituzten



Sabino Arana kalea zaharberritzeko proiektua izan da hiru urteotako garrantzitsuen

Lantzarte auzoan, Simon de Otxandategi kalean eta udal-kiroldegiaeren artean. Bestalde, skate-pista diseinatu eta berritzeko lanak aurreikusi zituzten.

SABINO ARANA ZAHARBERRITU. Hiru urteotako proiekturik garrantzitsuen izan da martxan ipinitako azkena. Udalbatzak Sabino Arana kalea zaharberritzeko lehenengo fasea onartu zuen 2017ko irailaren 26an. Urtearen akabuan hasi zituzten beharrak Simon de Otxandategi etorbidearen eta Uribe Kostako korridorean sartzeko dagoen errotondaren artean. Gune horretan bidegorria, berdeguneak eta estalitako jolasguneak ipiniko dituzte. Gainera, espaloiak zabalduko dira, gutxienez metro bi izateko. Lehenengo fase hori Valeriano Urrutikoetxea SLU enpresari esleitu dio Udalak, 1.464.080,53 eurorengatik, BEZa barne. Udalak zenbait lursail pribatu desjabetu behar izan ditu behar horietarako. ◀

BERANGO | Berango Merana ikastetxea

Hainbat proiektu garatu dituzte



Eskolaren kanpoaldea estali dute, besteak beste.

Berango Merana herri ikastetxeak hainbat berrikuntza izan ditu hiru urteotan. Ikasleek eskolarako joan-etorriak modu iraunkor, autonomo, osasuntsu eta seguruan egiteko, Eskolara Oinez proiektua martxan ipintzeko lehenengo urratsak eman zituzten 2015ean. Horretarako, hainbat guraso boluntario behar izan zituzten eta 2016rako egitasmoa martxan ipini zuten, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen laguntzagaz. Urte horretan ere, ikastetxearen kanpoaldea estaltzeko lanak abiarazi zituzten. Modu horretan, egun euritsuetan busti barik, ikasleek gune horiek erabili ahal izatea ahalbidetu zuten jolas-orduetan. Dena dela, eskola publiko horrek beste hainbat obra garrantzitsu hartu ditu azkenengo urteotan, hein handi batean eskolako azpiegitura berritzea eragin dutenak. Egindako lan horiek denek eskolaren kanpoaldea, leihoak, teilatua eta eskolaren hesia berritu dituzte.

IKASLEEK EGINDAKO LIBURUA. Aipatzekoa da ere Berango Merana eskolako 6. mailako 16 ikaslek sortutako liburua. 2015ean neska-mutil horiek gaztelaniazko liburu bat argitaratu zuten Iñaki Acasuso irakaslearen gidaritzapean, *Hace mazo tiempo... y otras grandes historias* izenekoa. Ikasleek kontatu zutenaren arabera, liburua Amazon dendaren bitartez eros daiteke, fisikoki zein elektronikoki.



Gure Esku Dagok Uribe Kostako 10 udalerrietan antolatu zituen herri-galdeketa 2017an. Maiatzean Barrikaren, Gorlizen, Lemoizen, Plentziaren, Sopelaren eta Urdulizen txanda izan zen, azaroan bestena. Galdera ez zen denetan berdina izan, baina bai oinarria: Euskal Herri burujabe baten alde zaude? Baiezkoa izan zen nagusi ia guztiz; hori bai, parte-hartze baxuagaz: %12,7 eskualde osoan.

Burujabetza ariketak

«Erabakitzen ikasi behar dugu»
Zelai Nikolas (GED)



2017ko azaroaren 5ean Uribe Kostako lau udaletan Gure Esku Dagok (GED) antolatutako galdeketa aurretik berba egin genuen elkarteko bozeramaile den Zelai Nikolas getxoztarragaz. «Herritarrok badaukagu zer egin erabakitzeko eskubidea gauzatzeko bidean», esan zigun, «erabakitzea mentalitate oso bat da». Galdeketa bera baino, garrantzitsuena horretara heltzeko prozesua dela adierazi zuen GEDko kideak, orduan puri-purian zegoen Kataluniako prozesua ondo gogoan. Izan ere, ordura arte «lokaztuta egondako gaiaz» katalanak normal berba egiten hasita zeudela igarri zuen Nikolasek, urriaren 1eko independentzia erreferenduma zela-eta han izandako egonaldian.

Herri galdeketa Emaizak herriz herri

1 2017ko maiatzaren 7a
Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?

2 2017ko azaroaren 5a
Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske erabakitzea?

3 2017ko azaroaren 5a
Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan?

	1						2			3	
	BARRIKA	GORLIZ	LEMOIZ	PLENTZIA	SOPELA	URDULIZ	BERANGO	ERANDIO	GETXO	LEIOA	GUZTIRA
PARTE-HARTZEA	%24,19	%17,76	%39,09	%16,72	%18,78	%20,55	%16,18	%10,02	%11,86	%9,44	%12,69
EMANDAKO BOTOAK	300	847	407	632	2.088	733	966	2.068	8.083	2.496	18.599
BAIEZKOAK	284	824	396	616	1.990	697	939	2.036	7.950	2.305	18.037
EZEZKOAK	13	19	9	14	67	28	18	22	88	154	422
ZURIAK ETA BALIOBAKOAK	3	4	2	2	31	8	9	10	45	26	140



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak:

mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute aukera 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien alde.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute, hau da, larrialdiez gain, abisu denak kontrolatu eta beharrezko premiak asetzen dituzte, astelehenetik domekara, 24 orduz eta urteko 365 egunetan. Dena den, eguneroko lan onari esker eta egiten duten mantentze-lanari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak

gerora dauden abisuen kopurua gutxitu egiten du, nabarmen.

EUSKARAREN GARRANTZIA. Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egitean, komertzialen bisitetan, administrazioekokin berba egitean, kontratuak idaztean... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera. Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute gura du-

Benetako 24 orduko zerbitzua ematen dute, astelehenetik igandera, 365 egunetan

tenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte, urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik. Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifatik. Oinarritzko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa hileko 100ekoa. «Prezio logikoak dira. Ez da nor-

mala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hori ia erdira jaitea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan», diote enpresakoek.

LARRIALDI ZERBITZUA. Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta denek dituzte LED argiak. Argi-kontsumoa murrizteko automatikoki amatatzen diren argiak, alegia. Orain dela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, zabalkunde itzela izan du beste bailara eta lurralde batzuetara.

Bizkaian, Durangon eta Bilbon ditu biltegiak Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa. 94 652 39 35 telefonoan eska daitezke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

1- Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.

2- Igogailua modernizatzeko eskaintza egiten dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.

3- Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Modu berean, ordaintzeko erraztasunak ematen dituzte. Igogailu batek arazo asko baditu, ezinbestekoa da elektronika zati osoa aldatzea.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu denentzat
- Pieza denak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Euren kasa amatatzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

PLENTZIA | Isuskitza auzunea



Arazo ugariren konponbide bila

Lur-jausi batek auzunerako sarreretako bat ixtea eragin zuen 2016ko martxoan. Horrek eztabaida asko eragin ditu urteotan, bidea pribatua delako eta inork ez zuelako hori konpontzeko ardura hartu. Bestalde, bertako garraio publikoaren zerbitzuak ere zeresana izan du; 2017an Bizkaiko Batzar Nagusiek aitortu zuten «arazo» bat dagoela, baina ez zuten zehaztu horren ardura duen administrazioa zein izan behar den.

PLENTZIA | Metro-geltokia

Itxiera eta birgaitze-obrak

Plentziako metro-geltokia itxi zuten 2015eko apirilean, Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko lanen ondorioz. Hala, erabiltzaileek autobus-zerbitzuaz baliatu behar izan dute urte biz, 2017an geltokia birmoldatu eta hura zabaltu zuten arte. Denbora tarte horretan, inguruan segurtasun arazoak salatu dituzte.

PLENTZIA | Plentzia Amesten

Umeen begietatik udalerria sortu

Umeentzako Plentzia euskalduna eraikitze prozesua abiarazi zuen Udalak 2017ko martxoan, Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren laguntzagaz. Horren helburua zen umeen iritziak, desirak eta interesak batzea. Ondorioetako bat izan da leku konkretu bat biziberritzea, baina hori baino, emaitza proiektuaren ibilbidea izan da.

PLENTZIA | Herri biren arteko senidetze-prozesua

Plentziarrak Kanadara joan zirenekoa...



2016an Placentiako ordezkariak etorri ziren gurera; 2017an, aldiz, bertokoak joan ziren Kanadara.

Sabino Laucirica historia-zaleak egindako ikerketari esker, Kanadako Placentia eta Plentzia herrien arteko senidetzea gauzatu da hiru urteotan.

Kanadako Placentia eta Uribe Kostako Plentzia udalerriek senidetzeko prozesuari hasiera eman zioten 2016ko urrian. Horretarako, Wayne Power Placentiako alkatea eta Noella Collins Kultura eta Turismo zinegotzia gurera etorri ziren, herrialde bien arteko lotura historikoen gainean berba egiteko, besteak beste. Hurrengo urterako, senidetzea ofizialki onartu zuen aho batez Plentziako Udalbatzak; horren helburuetako bat da herri bien arteko lankidetzat sustatzea, adiskidetasun-loturak indartzeko eta harremanak ugartzeko. Horretarako, 2017ko ekainean plentziarrak Kanadara joan ziren, *Tras las huellas de los balleneros vascos en Terrano-*

2015

Sabino Laucirica historia-zalea herri bien arteko lotura ikertzen hasi zen 2004an. Horren ondorioz, 2015ean Placentiako Udalak *Heritage Award* saria eman zion.

2016

Placentiako ordezkariak Plentziara etorri ziren, senidetze-prozesuari hasiera emanez.

2017

Plentziarrak Ternuara joan eta hitzarmena sinatu zuten; baita senidetzearen aldeko batzordea sortu ere.

va y Labrador espedizioagaz batera, eta bertan sinatu zuten herri bien arteko behin betiko senidetze-hitzarmena.

SENIDETZEAREN ALDEKO BATZORDEA. 2017ko abuztuan batu zen lehenengo aldiz Placentia-Plentzia Senidetze Batzordea. Horren helburua da herri bien gaineko jarduerak garatzea, berbarako udal-webgunean horri lotutako atal bat sortzea, berbaldi informatiboak egitea eta herrialde bien ikasleen arteko elkartrukea bultzatzea, besteak beste.

SABINO LAUCIRICA. Ternuako hiriburua izan zen Placentia, balea-ehiztariak bertan egon ziren garaian. Kanadako Placentia Plentziako itsasgizonek sor izan zezaketela pentsatuta, ikertu eta haritik tiratzen hasi zena Sabino Laucirica plentziarra izan zen. Txosten artean murgildu eta Placentiako jendeagaz harremanetan ipini zen. Hala, Placentiako Udalak *Heritage Award* saria eskaini zion horri, «denboran eta espazioan hain urrun kokatutako bi herrien lotura estutzeko egindako lanagatik». ◀

PLENTZIA • GORLIZ | Kultura Elkarrekin Aurrera (KEA)

Kultura bultzatu guran

Gorlizko eta Plentziako udalerrietan kultur programazioa eta eskaintza nahikoa ez delakoan, herri horietako hainbat artista elkartu dira horren denaren norabidea aldatzen ahalegintzeko. Hala, Kultura Elkarrekin Aurrera (KEA) plataforma sortu zuten 2017aren hasieran. Musika, antzerkia, dantza, poesia eta beste hainbat diziplinako artistek osatzen dute taldea, eta euren helburua da udalerri bi horietako «bizitza kulturala sustatzea eta iraultzea». Plataformako kideek azaltzen zuten, udalerri bietan «eragozpen handiak» daude kulturagaz lotutako edozer gauza antolatzeko. «Alde batetik, ez dago inolako aretorik, ez dago leku itxirik, eta zerbait egitekotan, kalean egin behar izaten dugu beti. Gainera, ez dago programazio koherente bat udalerri bien artean», deitoratu zuten plataformako kideek. Hori dena dela eta, zentro kultural baten beharra zegoela ikusi zuten. Horren premia aldarrikatu zieten udal biei, proposamena aintzat hartu zuten eta bideragarritasun-txostena egiten ibili dira 2017an. Urtearen akabuan, udalerri bietako agintariek jakinarazi zuten ikerketa hori azke-



I. Lagos, A. Ygartua eta Z. Bolaños artistek bultzatu dute KEA, L. Sepulvedagaz batera.

KEA plataforma: «Udalek kultura bultzatzen ez badute, jai dugu»

nengo fasean zegoela, proiektua ekonomiko ki bideragarria den edo ez ikertzekoa, alegia.

KULTURAREN «BEHARRA». KEA plataformak uste du leku bat izatea «beharrezkoa» dela kultur programazio finko bat izateko. ◀

PLENTZIA • GORLIZ | Euskaldunen sarea handitzeko

Euskara Agenda, batera

Gorlizko eta Plentziako udalek askotan antolatu izan dituzte ekintzak elkarren artean, herri bien arteko hartu-eman eta lotura handia delako. Gainera, udalerri bietako egoera soziolinguistikoa ere oso antzekoa da bertan, eta ugari dira herri batetik bestera doazen herritarrak gauza bat edo beste egitera. Hala, Euskara Agenda bateratu bat abian jartzea adostu zuten udal biek 2016 hasieran, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko euskara zerbitzuaren bitartez. Agenda komun horren helburua da udalerri bietako herritar euskaldunak «elkartzea eta euskaldunon sare hori ugaltzea, baita euskararen erabileraren normalizazioa lortzea ere, esparru denetan». Horretarako, askotariko ekintzak hartzen dituen hamaika egitarau antolatu dituzte urteotan. Arduradunek bere unean azaldu zu-

Udalerri bietako herritar euskaldunak «elkartzea eta sarea ugaltzea» du helburu Euskara Agendak

tenez, agenda horrek lau zutabe garrantzitsu ditu: soziolinguistika edo hizkuntza bera; literatura edo sorkuntza; kultura; eta historia edo ondarea. Bestalde, Euskara Agenda horren irudia edo logoa aukeratzeko lehiaketa antolatu zuten 2016ko otsailean. «Logo edo irudi horrek bi herrien arteko lotura eta euskararekiko lotura islatu behar du», azaldu zuten antolatzaileek. Aurkeztutako lan denen artean, Arrate Sarriegi Otadui gorliztarak aurkeztutako logoa eta *11 aukera!* lema aukeratu zuten.

ELKARREGAZ BEHAR EGITEKO MAHAIA. Euskara Agenda bateratuaz gainera, udalerri bietako udalek elkarregaz lan egiteko proiektuak adosteko «mahai iraunkorra» sortzeko ahalegina egin zuten 2016ko martxoan. Helburua zen auzokideentzako zerbitzuak hobetzea. ◀

PLENTZIA • GORLIZ | Gaztetxea

Lizentzia gora eta behera



Independenteek lokala ixtea eskatu zuten.

Plentziako eta Gorlizko gazteek Danontzat gaztetxea zabaldu zuten 2012an, Bizkaiko Foru Aldundiak aspaldi izan zuen ingurumen-gelan. Ordutik, neska-mutilek askotariko ekimenak egin dituzte Areatza hiribideko arkupeetan dagoen gunen autogestionatu horretan. 2015eko maiatzean lokal hori gazteei «behin betiko» uztea erabaki zuen Plentziako Udalak. Handik urte bira, baina, gaztetxearen itxiera-dekretu bat bidaltzea eskatu zion Plentziako Independenteak udal-taldeak David Crestelo alkateari, zentroak jarduera-lizentzia lortzeko baldintza denak «bete arte». Horri erantzunez, EH Bilduk jakinarazi zuen gaztetxearen eta Udalaren artean hartu-eman egon zela, oraindino obra bat egitea gelditzen zela lokalean eta horren ondoren, udal-arkitekto batek oniritzia emango balio, lizentzia emango luketela. Gazteek, euren aldetik, egoeraren nondik norakoen azalpenak eman zituzten udaletxearen aurrean, eta jakinarazi zuten, ezin izan zieten aurreikusitako obrei aurre egin baliabide ekonomikoen gorabeherengatik.

GAZTE ASANBLADA BIZIBERRITU. Gorlizko eta Plentziako gazte mugimendua bizitu guran, gazte-asanblada berria osatu zuten 2017an. Horren helburua da herri bietako giroa berreskuratzea, besteak beste.

GORLIZ | Xurrut taberna



Kontzertu gehiagorik ez

Xurrut tabernak, urteetan Uribe Kostako zuzeneko musika eskaintzen erreferentziazko lokala izan denak, kontzertuak antolatzeari utzi zion 2017ko akabuan. Hala jakinarazi zuten bertoko arduradunek, sare sozialen bidez. Antolatutako azken emanaldietara joandako «jende kopuru txikia» zela-eta hartu zuten erabakia. Halere, ez dute baztertzuten etorkizunean ohitura berreskuratzea.

GORLIZ | Udal-langileak

Lanean euskara bultzatzen

Lan-eremuan euskararen erabilera areagotzeko saioetan parte hartzen ibili ziren Gorlizko Udaletxeko langileak, 2017an. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eskatutako programa bat zen; horretarako, Elhuyarregaz harremanetan ipini ziren. Udaletxeko langileen arteko harremanak euskalduntzea zen helburua.

GORLIZ | TAO udan

Kanpotarrentzat bakarrik

Ekainetik irailera udalerrian TAO sistema martxan ipintzea erabaki zuen Gorlizko Udalbatzak, 2017ko urrian. Neurri horregaz, uda sasoiari jasaten duten ibilgailuen «saturazioari» aurre egin gura diote udal-agintariek. Jakinarazi zutenez, beste herrietatik etorritako bisitariek bakarrik ordaindu beharko dute autoa aparkatzeagatik.

GORLIZ | Hirigintza

Gehienez 1.593 etxe eraikitzeko aukera



HAPOn Aurrerapenak 5 proposamen jasotzen ditu. Kontserbadoreenak 1.164 etxebizitza berri egiteko aukera aurreikusten du.

Kopuru horren barruan daude etxebizitza libreak, tasatuak zein babes ofizialekoak. Dena den, erabakia ez da zurruna; zenbatekoa alda daiteke, udal-agintariek hartzen duten erabakiaren arabera.

Gorlizko HAPOn Aurrerapenaren nondik norakoak ezagutzeko aukera egon zen 2017ko hasierako asteetan, Sertutxena aretoan. Bertan ikusi ahal izan ziren udalerraren garapenerako aurreikusitako neurriak, berbarako urbanizazio berriak sortzea. Hala ere, zehazten denez, ezin izango dira 1.593 etxebizitza baino gehiago eraiki. Kopuru horren barruan daude etxebizitza libreak, tasatuak zein babes ofizialekoak. Dena dela, erabaki hori ez da zurruna, eta baliteke zenbateko hori aldatzea, udal-agintariek hartzen duten erabakiaren arabera. Izan ere, HAPOn Aurrerapenak bost aukera aurreikusten ditu. *Zero*

Alkatearen berbetan, «gutziz zaharkituta eta iraungita zeuden udalerriko arau subsidiarioak»

izeneko txostenak urbanizatzeko-eremu gehiago ez onartzea proposatzen du. Hala, eraikitze lursailak daudenak izango lirateke, eta 1.164 etxebizitza egin ahalko lirateke. Beste proposamenen zenbatekoak bestelakoak dira; 1.593 etxerainokoak, gehienez.

Udalerriaren Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren Aurrerapena jendaurrean aurkezte onartu zuen Gorlizko Udalbatzak 2016ko urriko osoko bilkuran, alderdi politiko denen adostasunagaz. Urte bi lehenago-edo hasi zuten HAPO berritzeko prozesua, aurreko HAPO denbora luzean egokitu barik egon ostean. «Gutziz zaharkituta eta iraungita zeuden udalerriko arau subsidiarioak», Arantza Etxebarria alkateak onartu zuen legeaz. Getxoko Estudio K-k egin zuen HAPOn Aurrerapena txostena; MASen laguntza izan zuen alde juridikoan, Basoinsarena ingurumen kontuetan, eta ADO2 Consulting arduratu da Plana jendarteratzeko prozesuaz eta elkartearen zein herritarren parte-hartzeaz. Azken hori helburu, HAPOn Aurrerapena ezagutzeko aukera egon zen, Sertutxena kultur etxean. ◀

URDULIZ | Garraioa

Metro-geltoki berria dauka udalerriak

Urdulizko metro-geltokiko zerbitzua 2017ko apirilaren 10ean berrabiarazi zuten. Bide-trazadura berria du, eta horren bidez behin betiko kendu da trenbide-pasagunea, metro-sarearen azkena zena.

Pasonibela kentzea izan zen Urdulizko metro-geltoki berrirako proiektuaren abiapuntua eta helburua; gastua 21 milioi eurokoa izan zen. Eusko Jaurlaritzaren arabera, «merezi izan du 24 hilabete itxarotea, bete baita Uribe Kostako biztanleek egindako eskaera: metroaren 1. linea udalerrian lurperatzea eta hesi historikoak behin betiko jaistea. Horri esker, lurzoru publikoko 6.000 metro koadro irabazi dituzte erabilera eta luperketarako». Geltokia berriz martxan ipintzean, behin betiko eten zen Plentziako eta Sopelako geltokiak lotzeko erabili izan den autobus-zerbitzua, obrek iraun zuten 24 hilabeteen martxan egon zena. 1.680.000 euro bideratu ziren autobus-zerbitzura. Denera, 543 metroko luzera estali zen Plentzia-Bilbo linean, % 2,7ko maldan gehienez, geltokia barne.

GELTOKIAREN EZAUGARRIAK. Urdulizko geltoki berriak aurrekoaren kokapen bera du, baina, orain, erabat lurperatuta dago. Bestalde, igogailua dauka eta kanpoko fosterito laukitik sartzen da bertara. Horretarako tunel faltsu bat egin da, geltoki baten ohiko lekuak eta instalazioak ipintzea ahalbidetu duena. Erdiko nasa bakarra utzi dute bi trenbideetarako, sei metro zabal dituen. Geltokia 172 metro luze da, eta sei zutabe dauzka, bankuak, paperontziak, publizitate-euskarriak... Geltokirako sarrera berorren gainean sortu den hiri-esparruaren kota berean dago. Gune horrek estaltzen du trenbidearen igarobideak orain arte utzitako «orbaina» udalerriaren hirigunean. Bizkaiko Garraio Partzuergoak azaldutakoaren arabera, «gaurtik aurrera, Urdulizek garapenerako hainbat aukera izango ditu: aisialdi-gune seguru bat, lurpeko geltoki irisgarri bat, mugikortasun



Inaugurazio-ekitaldiaren irudi bat. IREKIA - EUSKO JAURLARITZA

Geltokiaren ondoan 6.000 metro koadroko lursail bat geratu da, erabiltzeko moduan

Urdulizen egindako lanei esker, daborduko ez dago pasonibelik metro-ibilbide osoan

hobea trenbide-trazaduraren inguruan, pertsonentzako eta ibilgailuentzako segurtasun handiagoa», eta abar. Ildo horretan, Bizkaiko Garraio Partzuergoak hitzarmena izenpetu du Urdulizko Udalagaz, eta 400.000 euro emango dizkio lurperatze-lanen ondorioz sortutako azalera urbanizatzeko.

OBRA LUZEAK. 2015eko martxoaren 9an hasi ziren Urdulizko trenbide-pasagunea kendu eta geltoki berria eraikitze lanak. Aldaketen berri eman eta zalantzak uxatzeko bulego teknikoa ipini zuten, Antsonekoa plazaren ondoan; hiru hilabeteen, 2.000 kontsulta erantzun zituzten. 2015eko apirilaren 6rako, norabidea aldatzeko gaur egun erabiltzen den bretelle edo trenbide gurutzatua ipini zuten 100 beharginek, Sopelako tailerren parean. Horrek bermatu zuen Sopelako geltokia lanen eraginetik kanpo uztea. Urte bereko irailan, Javier Bilbao bisitan joan zen obretara. Orduan esan zion Vicente Reyes Garraioen foru-diputatuak lanak «2016. urtearen amaierarako» bukatuko zituztela. ◀

URDULIZ | Kirol-azpiegiturak

Kirol-eremuaosatzen dabilta

Urdulizko Udalbatzak onartu egin zuen 3,7 milioi euroko kirol-egitasmo berri bat, 2015eko azaroan, Iparralde futbol-zelaiaren kirolgunea txiki geratu zelakoan. Hala, futbol-zelaiaren ondoan eraikitzen hasi ziren 2017ko hastapenetan. Daborduko amaitzen dabilta padel-pistak, aldagelak eta askotariko erabilera-gelak.

URDULIZ | Kirola

Eskubaloi-taldeak 40 urte

Eskubaloi-festa handia prestatu zuen Urduliz Eskubaloi Taldeak 2017ko maiatzean eta ekainean. Klubaren 40. urteurrena ospatzeko, Espainiako Saskibaloitxapelketa antolatuta zuten, kadete-mailan, Iparralde kiroldegian. Bertako taldeak finalerdietara heltzea lortu eta podiumeko hirugarren maila zapaldu zuten.

URDULIZ | Hezkuntza

Elortza eskolan berrikuntzak

Hobekuntza asko bizi izan ditu Elortza eskolak urteotan. 2014-2015 ikasturtean, Eskolara Oinez programa martxan ipini zuten, umeen autonomia indartzeko. 2015-2016 ikasturteko akabuan, hezkuntza-proiektu berria aurkeztu zuten. Bitartean, zentroa zabaltzeko lanak 2018ko irailean amaitzea espero dute.

URDULIZ | Hizkuntza-eskubideak

Aktak euskaraz eskatu beharra

Legealdia hasi eta hilabete batzuetara, 2015eko azaroan, EAJren jarrera salatu zuen Urdulizko EH Bilduk, «gure zinegotzion eta urduliztarron hizkuntz eskubideak» urratzeagatik. Esan zutenez, osoko bilkura-akta denak «erdara hutsean» jaso zituzten. Urdulizko udal-arduradunek uko egin zioten adierazpenak egiteari.

Urte bi, mende erdiko erronka martxan ipintzeko

Aspaldikoa da Uribe Kostak ospitalea izateko ametsa. 1970eko hamarkadaren amaieran eraiki zuten Leioakoa. Basurtuko instalazioak hara mugitzeko plana bertan behera utzita, 2004an eraitsi zuten. Azkenik Urdulizen gauzatu da aspaldiko nahi hura.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIAK: HODEI TORRES ►

Gurutzetako ospitalearen menpeko erresoluzio handiko osasun-zentro bat Urdulizen kokatzea planifikatu zuen Eusko Jaurlaritzak 2007an. Getxoko Udalbatzak ez zuen denbora galdu eta azpiegitura udalerri horretan kokatzea eskatu zuen. Ekimenak ez zuen arrakastarik izan, eta 2009an berretsi zen ospitalea Urdulizen eraikitzeko asmoa, eskualdeko osasun-zentroa izateko. Orduan iragarri zuten 2012an martxan egongo zela, baina apurka-apurka datak atzeratzearekin eta aurrekontuak loditzearekin zioten arduradunek, krisia sakontzen zen bitartean. Eusko Jaurlaritzaren

lehenengo Osasun sailburuari egin zioten omenaldia, ospitaleari Alfredo Espinosa izena ipiniz. Lehenengo harria, oster, 2010ean paratu zuen Patxi López lehendakariak. Azkenean, ospitalea modu mailakatuan zabaltzea erabaki zuten, 2016 eta 2017 bitartean. Hala, 2016ko uztailaren 7an, goizeko 08:00etan arreta egin zioten lehenengo erabiltzaileari. 2017ko abenduaren 18an, oster, ospitalizazio-gunea estreinatu zuten, Iñigo Urkullu lehendakariagaz. Handik aurrera, 64 ohe bideratu dituzte ospitalizazio medikurako, Urdulizko ospitaleko B blokearen eraikineko ospitalizazio-solairuan. ◀

175.000

biztanleri ematen die zerbitzua Urdulizko Alfredo Espinosa ospitaleak; Uribe Kostako eta Mungialdeko 18 udalek dute erreferentzia-zentrotzat. Hala, Uribe Kostako udalerri den biztanleak hartzen ditu, erandioztarrak izan ezik. Izan ere, bertako Udalbatzak eskatu zuen Gurutzetari lotuta segitzea.

337

mediku, erizain eta behargin dabilten lanean ospitalean. Zentroa zabaldu zenetik bertan egin dira 63.800 kontsulta, 38.000 erradiologia-proba, 14.000 mediku-azterketa eta 500 ebakuntza. Gainera, 16.200 larrialdiri erantzun diete.

59,6

milioi euro erabili zituen Eusko Jaurlaritzak osasun-zentroa eraiki eta martxan ipintzeko. Hasierako aurrekontua 40 milioikoa izan zen. Bestalde, urtero funtzionamendurako beste 45 bat milioi dituzte aurreikusita.





Lanpostu denak izango dira publikoak

Nabarmena izan da sindikatuen eta Osakidetzaaren arteko dibortzioa Urdulizko ospitalean. Langileen ordezkariak irabazi zuten azpikontratazioen aurkako pultsu luzea, 2017ko akabuan, auzitegiek arrazoia eman zieten. Halaber, Jaurilaritzak zuzenean kontratatu zituen 41 langile, zentroko sukaldean eta garbiketan jarduteko. Horren eraginez, kalean utzi zituzten Comercial de Limpieza Villar SA enpresako hamazortzi behargin. Sindikatuek bat egin zuten langileakaz eta Osakidetza eta enpresari eskatu zieten berrartzeko, erabakiak «modu desegoki eta kontzientean hartu» zituztelakoan.



Eskualdeko alkateak, zentroa ezagutzeko bisitan

U ribe Kostako udalerri denetako udal-arduradun edo zinegotziak batu ziren Urdulizko ospitalean, 2016ko apirilaren 8an, osasun-zentroak bere lehenengo zerbitzuak estreinatu baino hiru hilabete lehenago. Erandio ere egon zen ordezkatura, oraindino Urduliz baitzuten erreferentziako ospitale. Urtebete geroago, Jon Darpon Osasun Sailburuak beste bilera bat izan zuen alkateakaz, «ospitalizazio-zerbitzuaren irekieran dagoen atzerapenaz» informatzeko. Horren errua sindikatuei leporatu zien, azpikontratazioen aurkako helegiteak ipini zituzten eta.



Ospitalera arteko garraioak, azken urteotako kezka

Uribe Ospitalea herri-plataformak Sopelako Udala kritikatu zuen 2017 urtea amaitzean, udan egindako parte-hartze prozesuagatik. Bertan, berbabide izan zuten ospitalerako sarbideak Olabide eta Osteiko guneeetatik bideratzea. Elkartearen arabera, foroa egin zen «opor-garaian eta udal-jaietan» eta aurreko azterketen eta Udalbatzak hartutako erabakien aurka. Gontzal Hermosilla alkatearen ustean, oster, Olabideko «segurtasuna hobetzeko» baliagarriak izan ziren proposamenak. Aldundiak udalei pasatu zien ospitaleko sarbideen ardura. EAJko eta EH Bilduko Urdulizko eta Sopelako alkateak ez ziren ados ipini.



Erraldoiari erabilera berria eman guran

Lemoizko zentral nuklearra herri-mugimenduaren garaipen-sinboloa izan da urte luzez. Hura itxi eta hiru hamarkadaren ondoren, Basorda kala izandakoaren inguruan dagoen azpiegiturari erabilera berria eman gura dio Eusko Jaurlaritzak, arrain-haztegi gisa. Oposizioko taldeek bestelako aukerak proposatu dituzte bertan egiteko.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Hiru hamarkada baino gehiago igaro dira Lemoizko zentral nuklearra itxi zenetik, eta oraindino ere badu zeresana Basorda itsasartean dagoen hormigoizko mamu horrek. Hura ixteagatik Espainiako Gobernuak ezarritako luzamendu nuklearrari aurre egiteko ordainketa kitatu zuten kontsumitzaileek 2015eko urrian. Handik urtebetera, Bizkaiko Batzar Nagusiek ahalmena duten instituzioei, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Lemoizko Udala, zentral nuklearrak okupatzen dituen lurak berreskuratzeko «eman beharreko

Zentral nuklearraren instalazioetan arrain-haztegi bat egitea proposatu du Eusko Jaurlaritzak

pausoak» eman ditzaten eskatzea onartu zuten. Hala, 2017ko maiatzean lur-eremu horiek euskal erakundeen esku egongo zirela jakinarazi zuten, EAJk eta PPk Espainiako Kongresuan egin-dako akordioaren ondorioz. Handik eta bost hilabetera, zentral nuklearraren instalazioetan arrain-haztegi bat egiteko proposamena egin zuen Eusko Jaurlaritzak. Horren aurrean, proiektua ekosistemarako eta ekonomiarako «kaltegarria» izan daitekeela deitoratu zuen Equok. Ostera, Ezker Anitzak bertan energien ko-generazio zentro bat egitea proposatu zuen. ◀



1972

Frankismoaren azken urteetan hasi ziren Lemoizko zentral nuklearra eraikitzen. Basordan erreaktore nuklear bi ipintzeko baimena jaso zuen Iberduerok; abuztuaren 3an jaso zuten eraikitzeke lizentzia, eta egun horretarako obrak hasiak ziren.

1984

Zentral nuklearraren aurkako jarrera piztuta zegoen herrian, eta horri aurre egiteko mugimendua osatzen hasi zen. ETAk ere hainbat ekintza egin zituen urte horietan. 1984an, PSOEk Espainiako hauteskundeak irabazi zituenean, luzamendu nuklearra ipini eta obrak behin betiko uztea agindu zuten.

2015

Luzamendu nuklearrari aurre egiteko ordainketa kitatu zuten 2015ean kontsumitzaileek. Kostu hori energia elektrikoaren ordainagirian txertatzea erabaki zuen Espainiako Gobernuak 1996an. Hala, kontsumitzaileek 2.273 milioi euro ordaindu behar izan dituzte zentrala amortizatzeke.

2017

Zentralak dituen lur-eremuak euskal erakundeen esku egongo direla jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak, EAJk eta PPk Espainiako Kongresuan lortutako akordioaren ondorioz. Hala, inguru horretan arrain-haztegi bat egiteko proposamena egin zuen Jaurlaritzak.

LEMOIZ | Azpiegiturak

Herria eraberritu bai, baina zelan?



Eztabaida piztu da Armintzako Kofradia zaharren ordez egin gura duten eraikina dela eta.

Azpiegitura garrantzitsu batzuk berrizteari ekin dio Lemoizek. Horren beharragaz ia denak bat etorri arren, proiektu zehatzek ez dute erabateko adostasuna lortu. Kofradia berriaren gaineko eztabaida da adibiderik esanguratsuena.

Armintzako Arrantzale Kofradiaren tzat eraikin berria egiteko proiektuak eztabaida piztu du herrian. 2016ko irailean onartu zuten oinarritzako egitasmoa Eusko Jaurlaritzak, Lemoizko Udalak eta Kofradiak berak; handik hilabete batzuetara, egindako proposamenarekiko zalantza agertu zuten hainbat herritarrek, baita euren iritzia kontuan hartu izan zedin kanpaina antolatu ere, besteak beste *Change.org* plataformaren bidez izenpe bilketa eginez. Arrantzaleen beharrianak asetzeko eraikin berria egiteaz ados egonda ere, aurkeztutako proiektuak portuaren zati handiegia hartuko duela adierazi zuten: «Eraiki-

Kofradia berriak leku lar beteko duelakoan, izenpe bilketari ekin zion herritar talde batek



Lemoizko lehengo udaletxea, Urizar auzoan.



Martxan dago eskola handitzeko proiektua.

nak oztopo arkitektonikoa sortuko du aisialdi-gune garrantzitsuenean». Aurrekontua ere gehiegizkotzat jo zuten. Eraikin berria egiteak zaharra eraistea ekarriko du, bide batez.

ESKOLA HANDITU. Azken urteetan sano hazi da herriko eskolan dabilzan ikasleen kopurua. Horrenbestez, eraikina handitzeko eta hainbat hobekuntza egiteko proiektua martxan du Eusko Jaurlaritzak; «ez da nahikoa», uste du hala ere Natxo Hormaetxea eskolako zuzendariak. Martxan ipinitako lanek azpiegitura hobetuko badute ere, benetan behar dena eraikin berria dela aldarrikatu zuten Hormaetxeak HIRUKAko orrialdeetan, 2017ko apirilean.

UDALETXE ZAHARRAK TEILATU BERRIA. Lemoizko Udaletxea izandako eraikinak ere eraberritze premia zuela-eta, haren teilatua zaharberritzeko lanak hastea erabaki zuen Udalak 2016ko urrian, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako 14.500 euroko diru-laguntza erabilita. ◀

LEMOIZ | Etzandarri taldea

Mendia ezagutu, euskara hauspotu

2015 amaieran sortu zuten Etzandarri mendi taldea, 5 eta 14 urte bitarteko umeengan euskararen erabilera bultzatu gura zuen lemoiztar talde baten ekimenez. Hilean behin irteerak egin dituzte harrezkeroztik, betiere euskara hutsean jardunez. Hizkuntza-ohiturak ez eze, naturaren ezagutza ere sustatzen dute txikiengana.

LEMOIZ | Kutsadura

Lindano isuria Jata mendian

Ekologistak Martxan taldeak «kontrolik gabeko» lindano-isurketa aurkitu zuen Jata mendiko zabortegiaren inguruan, 2017ko ekainean. Agintariak jakinaren gainean ipini zituzten ekologistek. 2014an itxi zuten zabortegia, baina 2016an berriro hasi ziren erabiltzen, Bilboko Artigas mendikoa betetze-ahalmenaren mugara helduta.

LEMOIZ | Energia



© BIMEP

Olatuen indarra, argindar iturri

2016ko udagoiengana heldu zen Armintzako kostaldera olatuen energia elektrizitate bihurtzeko aukerak aztertzen dabilen Bimep prototipoa. Erandioko Navacel enpresan eraiki zuten energia-kaptadorea, eta Bilboko itsasadarretik atera ostean itsasoz Armintzara eroan zuten. Eusko Jaurlaritzak sustatu du ikerketa-proiektua, Energiaren Euskal Erakundaren bitartez.

BARRIKA | Hirigintza

Ia milioi bateko «faktura» Barrikabasoko auziagatik



Barrikabasoko itsasertzeko 62 hektarea babesteko Lurralde Plan Sektoriala aldatzea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 2016ko udaberrian. Legez kanpo eraikitako 14 txalet daude bertan.

Oso litekeena da hamar urtetik gora iraun duen Barrikabasoko auzia behin betiko amaierara hurreratu izana. Hala ere, Udalak 8 urte beharko ditu epaitegiek agindutako kalte-ordaina guztiz kitatzeko

Barrikako Udala eta Txipio Bai talde ekologista ados jarri ziren 2015eko akabuan, Barrikabasoko eremua babes bereziko gune izendatzeko. Hala eman zitzaion amaiera bertako lurren birsailkapenaren eta legez kanpo eraikitako hamalau txaleten kontura hamarkada bat baino gehiago iraun duen bien arteko tirabirari. Baina auziak ondorio gehiago ekarri ditu, eta ez Udalaren onerako beren beregi. EAEko Auzitegi Gorenak 2017ko urtarrilean erabaki zuen Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1,5 milioi euroko kalte-ordaina eman beharko ziotela, erdi bana, hiru enpresa eraikitzailei: Astarloa 91, Arne Muriola eta Abandonada Muriola. Erakundeek helegiterik ez aurkeztea erabaki zuten, eta enpresek ere bide beretik jo eta bere horretan onartu zuten epaia, hasiera batean eskatuta zuten indemnizazioa 24,6 milioi eurokoa izan bazen ere.

Aurrekariak

1990

Udalak eta Aldundiak akordioa egin zuten eremuaren jabeagaz 349 txalet eraikitzeko. Proiektua ez zen gauzatu, gunea babestuta zegoelako.

1998

Udalak Barrikabaso zati bat birsailkatu zuen, 85 txalet eta babes ofizialeko 12 etxebizitza eraikitzeko.

2004

EAEko Auzitegi Nagusiak onartu egin zuen 1998ko birsailkapenaren aurka Txipio Bai talde ekologistak aurkeztutako helegitea. Zelangura, eraikuntza lanak hasi egin ziren.

2009

Espainiako Auzitegi Gorenak legez kanpokotzat jo zituen ordurako Barrikabason altxatutako 14 txaletak.

Aldundiak ordaindu du daborduko bere zatia, baina Udalarentzat ez da hain erraza epaitegiaren agindua betetzea. Interesak gehituta kitatu beharko duen diru-kopurua 950.000 euro ingurukoa da, hau da, urte oso bateko udal aurrekontuaren heren bi, gutxi gorabehera. Hori dela eta, ordainketa zortzi urtean egiteko plana aurkeztu zuen gobernu-taldeak, baita 2017ko apirileko osoko bilkurak onartu ere. Planaren arabera, 200.000 euroko ordainketa bat egin behar zen hasieran, eta ondoren 5.800 inguru ordaindu hilero.

Gogoratu behar da aurreikusitako 70 txalet inguru geratu zirela eraiki barik, Txipio Baik eremuaren birsailkapenaren kontra ipinitako errekurtsioa dela eta. Lehen epaien arabera honezkero eraikitako hamalau etxeak bota beharko baziren ere, ekologistak prest agertu ziren horiek bertan mantentzea onartzeko, Udalak inguru osorako babes plan bat egitearen truke.

BABES PLANA. 2016ko martxoan, Barrikabasoko itsasertza babestu eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala aldatzea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Horren arabera, babes berezi zorrotza edukiko dute labarrek, eta babes berezi bateragarria gainerako esparruek. Muriola aldean nekazaritza eta abelazkuntzako kategoria eduki duen eremu txiki batean, berriz, nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala kategoria ipintzea erabaki zen. Aldaketak 62 hektareari eragingo dio. ◀

BARRIKA | 'Game of Thrones'



© GOT

Telebistaren arrastoak

Egun bi nahikoak izan ziren Barrikaren izena munduan zabaltzeko, bai behintzat *Game of Thrones* telesailaren jarraitzaile ugarien artean, Muriola hondartzan filmatu ziren-eta pasarte batzuk. Fan ugari erakartzeaz gain, 20 herritarrentzat lan apurra ekarri zuen telesailak, ez ordea aktore modura, ez eta ere, hainbaten esanari jaramon egin behar badiogu, baldintzarik onenetan. Ordainetan-edo, turismoa sustatzeko aitzakia izan liteke filmazioa, antza.

BARRIKA | Kaleko argiteria

Argia, merkeagoa eta garbiagoa

Kale-argiteria berritzea erabaki zuen Barrikako Udalak 2015ean, kontsumoa % 60 inguru gutxitzeko asmoz. Horretarako, bola itxurako 120 farola kendu eta haien ordeaz LED sistemakoak ipini zituzten. Udalaren esanetan, urtero 55 tona CO2 gutxiago isurtzeko aukera ematen du horrek, gastua murrizteaz gain.

BARRIKA | Trafikoa

Autoak arinegi, jendea haserre

Besteak beste, bidegabeko egoerak salatzen du HIRUKAren Komunitateak. Hala eduki genuen gure jarraitzaile batzuen haserrearen berri, Barrika zeharkatzen duen BI-2122 errepidean behar baino askoz arinago ibiltzen direlako auto gidari asko, arriskua sortuz.

GURE IKASLEEN AHOTAN

MARKEL GOMEZ (20 urte, Plentzia) Ingeniaritza Biomedika graduako 3. maila ikasten ari da Mondragon Goi Eskola Politeknikoan, Arrasateko campusean.

"Kurtsoan zehar landutako gai asko praktikan jartzeko aukera eskaintzen du eredu dualak"

ZERGATIK AUKERATU ZENUEN INGENIARITZA BIOMEDIKA GRADUA, ETA ZERGATIK MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?

Batxilergoa bukatzean, argi neukan Bioteknologia arloko gradu bat ikasi nahi nuela. Gaur egun, gero eta aukera gehiago zabaltzen ari dira Osasun Zientzien esparruan. Arlo honen barruan dauden pertsonal kualifikatuak hutsuneak betetzeko aukera ematen du Ingeniaritza Biomedika graduak. Gradu honek hainbat arlo batzen dituen (Medikuntza, Diseinu Ingeniaritza, Elektronika...) irteera profesional ugari dauka. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen eskaintzen duen ikaste-metodologia berezia delako eta POPBL-ak egiten direlako kurtsoan zehar. Ikasturtea, kurtsoan zehar emandako klaseen eta POPBL-en (Project Oriented Problem Based Learning) bitartez kalifikatzen da.

UNIBERTSITATEK ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?, ETA ZERBAIT HOBETZEKO?

Unibertsitateak zerbitzu ugari eskaintzen dituela. Horretaz gain, irakasleek eskolan duten presentzia nabarmena da (ordutegi zabala). Horri esker, ikasleek zailtzak edo arazoak azkar argitzeko eta zuzentzeko aukera dugu. Gainera, nire ustez POPBL metodologiari esker, ikasturtean zehar landutako gaiak hobeto ulertzen ditugu. Bestalde, tailerrean edo laborategian praktika gehiago egitea gustatuko litzaidake, makinekin eta prozesuekin trebezia gehiago garatzeko asmoarekin.

LANEAN ARI ZARA IKASTEN DUZUEN BITARTEAN, DUAL EREDUAN, NON ARI ZARA JAROUNEAN ETA ZER LAN MOTA EGITEN DUZUN?

MicroLIQUID enpresan jarduten dut arratsaldeetan. Mikrako (μm) moldeen mekanizazioa eta lor daitezkeen moldeen neurri optimoak aztertzen ditut. Osasun eta Bioteknologia-ikerkuntza sektoreen alderdi batzuetan moldeen neurri txikiak garrantzi handia du.

ZER NOLAKO EKARPEN EGITEN DITUZU EREDU DUALAK?

Ikasketen ikuspuntutik, kurtsoan zehar landutako gai asko praktikan jartzeko aukera eskaintzen du eredu dualak. LIP-ari (Lan Ikaste Parte-katzea) esker denbora hobeto antolatzen ikasten duzu eta, lehen bezala, praktiketan aztertutako gaiak kurtsoko irakasgai batean agertzen badira, horiek ulertzeko erraztasun gehiago duzu.

ETORKIZUNARI BURUZ ZEINTZUK DIRA ZURE ASMOAK?

Momentuz, Ingeniaritza Biomedikoa gradua lortzea eta Teknologia Biomedikotik Unibertsitate Masterra hastea.

www.mondragon.edu/prest

Urte hasieratik zure bila gabiltza!

Hirukalagun izanez gero,
hamaika onura: sarrerak, liburuak, diskoak...

Ipini gugaz harremanetan:
944 911 337 • administrazioa@hiruka.eus



URIBE KOSTA | Erakundeen osaketa

Etxeko hauteskundeetan, jeltzaleak nagusi berriro

Ezker abertzalea berriro legalizatu ondoren, ziklo politiko bat zabaldu zen Euskal Herrian eta Uribe Kostan; erabateko eragina izan zuen 2011ko udal- eta foru-hauteskundeetan, Espainiakoetan eta 2012ko Eusko Legebiltzarrekoetan. 2014ko Europako hauteskundeakaz, berriz, beste aro bat zabaldu zen.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►


Podemos edo Ahal Duguren sorrerak isla izan du eskualdean. 2015ean, alderdiak ez zuen zerrenda propiorik aurkeztu udal-hauteskundeetara, «zerua oldarraldiz hartzeko» es-
trategiarako kaltegarria zelakoan. Hala, udalerri batzuetan moreak bateratze-hautagaitzetan aurkeztu ziren, Ezker Anitzagaz, Equogaz edo talde independenteakaz; beste leku batzuetan, alderdi instrumental baten bidez egin zuten; eta azkenik, zenbait hautagai-tzatan banatuta ere agertu ziren jendaurrean. Halere, eskualdeko hi-

rugarren indarra izatea lortu zuten, aliatuakaz batera 11.652 boto eta hamahiru zinegotzi lortuta. Estatuko ezker politikoan izandako mugimenduek ondorioak ekarri zizkioten EH Bilduri, 2011tik bere eremu tradizionaletik kanpo batutako hainbat boto joan baitzitzaion. Bitartean, PPK botoen ia erdia galdu zuen, eta PSE-EEk laurdena. Zi-
klo berriko beste emaitza bat izan zen C's estreinatzea.

HEGEMONIA JELTZALEA. Hala, EAJk udal-hauteskundeetarako zituen erronka denei heldu zien. Hauteskundeak irabazi zituen berriro Sopelan eta Plentzian, eta botoen % 37gaz eskualdean hegemonia lortu zuen, Barrikan, Gorliz, Lemoizen eta Urdulizen babes handituta. Es-
kualdeko udal-gobernuak erraz eratu zituen EAJk, EAE mailan ahulta-
sun egoeran zegoen PSE-EEgaz. Halere, salbuespen bi egon ziren: Plen-
tzian, independenteek alkatetza eman zioten EH Bilduri; eta Sopelan, sozialisten babes ez da nahikoa aurrekontuak aurrera ateratzeko. ◀


Udal-hauteskundeak 2015 Zinegotzi-kopuruak udalerrika

Barrika




EAJ 4	284	(%34,01)
EH Bildu 3	240	(%28,74)
iBarrika 1	103	(%12,34)
Orain 1	71	(%8,50)
Equo 0	64	(%7,66)
PP 0	26	(%3,11)
PSE-EE 0	23	(%2,75)
Zuriak	13	(%1,56)
Baliogabeak	11	(%1,32)

Berango




EAJ 5	1.229	(%36,59)
EH Bildu 4	857	(%25,51)
Denok Bat. 2	453	(%13,49)
PSE-EE 1	268	(%7,98)
PP 1	254	(%7,56)
Irabazi 0	179	(%5,33)
Zuriak	65	(%1,94)
Baliogabeak	55	(%1,61)

Erandio




EAJ 9	4.334	(%37,93)
Ganemos 4	2.116	(%18,52)
PSE-EE 4	1.743	(%15,25)
EH Bildu 3	1.741	(%15,24)
PP 1	586	(%5,13)
Irabazi 0	408	(%3,57)
Aulki Zuriak 0	107	(%0,94)
Zuriak	174	(%1,52)
Baliogabeak	218	(%1,91)

Getxo



EAJ 9	13.625	(%33,78)
PP 5	7.432	(%18,43)
GUK 4	5.809	(%14,40)
EH Bildu 4	5.760	(%14,28)
PSE-EE 2	3.044	(%7,55)
C's 1	2.362	(%5,86)
Vox - FyV 0	781	(%1,94)
UPyD 0	331	(%0,82)
Zuriak	822	(%2,04)
Baliogabeak	365	(%0,91)

Gorliz




EAJ 6	1.115	(%38,58)
GIT 4	669	(%23,15)
EH Bildu 3	620	(%21,45)
Orain 0	167	(%5,78)
AVxG 0	84	(%2,91)
PP 0	79	(%2,73)
PSE-EE 0	52	(%1,80)
Zuriak	55	(%1,90)
Baliogabeak	49	(%1,70)

Legenda

- EAJ
- EH Bildu
- PP
- PSE-EE
- Ahal Dugu-k sustatutakoak
(Denok Batera, Ganemos Erandio, Esnatu Leioa, GUK)
- Besteak
(GIT, Plentziako Indep., GI, Irabazi, Equo, iBarrika, PUM+J, UPyD, PSyV, EKA, Orain, Aulki Zuriak, Vox-FyV, AVXG, POSI)
- C's


DATUEN ITURRIAK:
ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA
EUSKO JAURLARITZAREN SEGURTASUN SAILA

Udal-hauteskundeak 2015 Uribe Kostako botoak




EAJ	67	30.782
EH Bildu	36	14.914
Ahal Dugu eta aliatuak	13	11.652
PP	9	10.115
PSE-EE	11	7.473
C's	1	2.362
Besteak	9	5.089
Zuriak		1.692
Baliogabeak		1.090


Hauteskunde alderaketa



Foru-hauteskundeak 2015 Bizkaiko jarlekuak




Leioa




EAJ	9	5.202	(%35,70)
E. Leioa	4	2.356	(%16,17)
EH Bildu	3	2.280	(%15,65)
PSE-EE	3	1.862	(%12,78)
PP	2	1.377	(%9,45)
Irabazi	0	706	(%4,84)
Aulki Zuriak	0	217	(%1,49)
POSI	0	72	(%0,49)
Zuriak		305	(%2,09)
Baliogabeak		195	(%1,34)

Lemoiz




EAJ	6	418	(%61,83)
EH Bildu	3	208	(%30,77)
PP	0	4	(%0,59)
Zuriak		25	(%3,70)
Baliogabeak		21	(%3,11)

Plentzia




EAJ	5	968	(%42,23)
EH Bildu	4	647	(%28,23)
Plentzia Ind.	2	483	(%21,07)
PP	0	77	(%3,36)
PSE-EE	0	32	(%1,40)
Zuriak		43	(%1,88)
Baliogabeak		42	(%1,83)

Sopela



EAJ	7	2.565	(%38,65)
EH Bildu	6	1.977	(%29,79)
Denok Batera	2	642	(%9,67)
PSE-EE	1	342	(%5,15)
Orain	1	336	(%5,06)
Irabazi	0	311	(%4,69)
PP	0	218	(%3,28)
Zuriak		153	(%2,31)
Baliogabeak		93	(%1,40)

Urduliz



EAJ	7	1.042	(%48,49)
EH Bildu	3	584	(%27,18)
Denok Batera	1	276	(%12,84)
PSE-EE	0	107	(%4,98)
PP	0	62	(%2,89)
Zuriak		37	(%1,72)
Baliogabeak		41	(%1,91)



BERANGO, LEIOA ETA SOPELA | Baso-suteak

Gurata isiotutako suteak infernua itzartu zuen

ANDRES MIGUEZ SACHETTI

Haize-ufada gogorak iragarrita zeuden 2015eko Gabonetarako. Espero ez zena zen abenduaren 27an hainbat sute piztea Uribe Kostan. Berangokoa izan zen larriena, Muñarrikolandatik erraz zabaldu zelako, tartean Sopelara.

Hasieratik, suhiltzaileek jardun zuten Palaparru bideko sas-traka-guneetan hasitako garrak amatatzen; halere, sutea zabaldu zen, abiadura handiko haize-boladen eraginez. Leioako Artatza auzoan ere beste sute txiki bat piztu zen eta bertako baserri bateko bizilagunak atera zituzten, gunea amata-tu arte. Egun horietan etxetik irtenarazi zituzten pertsona bakarrak izan ziren, ez baitzen egon arriskurik. Hurrengo egunean Aldundiko, Jaurilaritzaren Nekazaritza Zuzendaritzako eta Basalaneko suhiltzai-leek menpean hartu zuten sutea Sopelan. Bitartean, hainbat zurrumuru hedatu ziren eskualdean; hala, lau haizetara zabaldu zen Ander Deuna ikastola eta El Sol garagardotegia kiskalita geratu zirela. Ez zen egia, garrak ez baitziren haraino iritsi. Berangon hiru kilome-tro koadroko gunea hartu zuen suteak, hilerritik eta industriagune batetik hurbil, baina basoan baino ez zuen kalterik eragin.

Abenduaren 28an, sua amatatzeko aireko baliabideak eskatu ziz-kion Aldundiak Espainiako Nekazaritza Ministerioari. Ur-hegazki-nak Nafarroatik eta Kantabriatik heldu ziren, eta Ereagatik ibili ziren urez betetzen. Dena den, Carlos Uriagereka Aldundiaren Baso Zerbi-

tzuko buruzagiak azaldu zuenez, haize-bolada bortitzek eta orografia malkartsuak amatatzeko lanak zaildu zizkieten hegazkineko pilotuei eta gainerako beharginei. Bitartean, suteak zenbait traba eragin ziz-kien eskualdeko biztanleei: Metro Bilbaok zerbitzua eten zuen goi-zean Larrabasterrako eta Astrabuduko geltokien artean, sugarrek goi-tentsioko linea bati eragin zioten eta. Gainera, umeentzako Ga-bonetako parkea bertan behera geratu zen Berangon. Arrastian, hai-zeak hainbat gunetako sugarak biziara zi-tuen, baina suhiltzaileek menderatu zituzten. Gauean, itzaltze-zerbitzukoek beharrean jardun zuten oraindino hainbat gunetan zegoen sua ez zedin biziara. Ilun-tzean egindako euri apurra eta haize-boladen indarra asko txikitzea lagungarri izan zitzairen suhiltzaileei sua guztiz amatatzeko.

Hurrengo egunean eman zuten kalteen berri. Aldundiak baieztatu zuenez, 200 hektarea erre ziren: %70 Berangon eta gainerakoa Sopelan. Lucia Isla Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza zuzendari nagusi algortarrak goraiatu egin zuen «suhiltzaileen eta jendearen lana» eta ohartarazi zuen: «hidrohegazkinen ikusgarritasuna alde batera utzita, jendearen lanik gabe ezinezkoa litzateke sua itzaltzea». 70 bat suhiltzailek eta Basalan foru sozietate eta mendi-zerbitzuaren 110 bat lagunek jardun zuten Berangoko baso-sutearen amatatze-beharretan. Abenduaren 30ean, Berangon sute txiki bi birrisiotu ziren, baina ordu gutxian amatatu zituzten. Sopelako Udalak baliabideak ipini zituen material ondarean galerak jasan zuten kaltetuen eskura. Otsailaren 9an egindako agerraldian, Islak baieztatu zuen Berangoko sutea «gu-rata» isiotu zutela, Ertzaintzak susmatzen zuen legez. ◀

200

hektarea erre ziren
Berangon eta Sopelan,
2015eko Gabonetan,
Aldundiaren arabera.

180

behargin eta
suhiltzaile ibili
ziren baso-sutea
amatatzeko lanetan.

URIBE KOSTA | Energia eta ingurumena

Fracking-ari agur?



Gasa ustiatzeko Geminis proiektuak hautsak harrotu ditu eskualdean. Herriarrek eta alderdiek lanari ekin zioten fracking edo haustura-ren hidraulikoa erabiltzeko proiektuei aurre egiteko. Izan ere, presio hidraulikoaz baliatuz lurzoruko arroak hautsi eta gas naturala ateratzeko teknika ate-joka ibili da eskualdean; Bizkaiko kostaldean zehar fracking-aren bidez gasa ustiatzeko proiektu bat

Berangok, Erandiok eta Getxok baztertu zuten «fracking gabeko udalerriak» izatea

zegoen martxan: Geminis izenekoa. Espainiako Industria Ministerioak Frontera Energy Corporation SL nazioarteko enpresari eman zion Geminis proiektua gauzatzeko baime-na, 2011n, eta horrek Getxo eta Bermeo arteko 47.940 hektarea hartzen zituen, lur-rean zein itsasoan. Egoera horren aurrean, herri-tar ugari batu eta mobilizatzen hasi ziren; eta horren adibide izan ziren Getxoko eta Sopela-ko fracking-aren aurkako taldeak. Mugimen-dua udaletara heldu zen gerora; Plentziakoa izan zen eskualdean teknika horren kontra agertu zen lehenengo udala, eta «fracking gabeko udalerri» izendatu zuten alderdien ahobatezko erabakiagaz. Bide berdina har-tu zuen hurrengoa Gornitzko Udala izan zen, emaitza beragaz. Jarraian Sopela ere teknika-ren kontra agertu zen.

GEMINIS, BERTAN BEHERA. Hamaika borroka, ekimen eta kontraesan ostean, 2017ko abenduaren 14an Espainiako Buletin Ofizialak argitaratu zuen hidrokarburoen ustiapena fracking-aren bidez aztertze baimenak bertan behera geratu direla. Buletinak jaso duenez, horretarako azalpena da Frontera Energy Corporation SL enpresak uko egin dio-la 2011tik zeukan baimenari. ◀

URIBE KOSTA | Itsasadarreko errepidea

Bidegorria egiteke




Teknikoa bezainbat ekonomikoa da arazoa.

Joan den mendean, 2000n, hitzartu zuten erakundeek itsasadarreko bidea egokitzea txirrindularientzat. Erabaki hori hartu zuten Erandio, Leioa, Getxo eta Bilboko udalek, Bilboko Portuko Agintaritzagaz eta Aldundiagaz, besteak beste. Hala, 2015eko martxoan, Bizkaiko Batzar Nagusiek agindu zioten Agintaritzari Bilbo eta Getxo udalerrien arteko bidegorria bideratzeko proposamen bat egin zezan. 2017ko maiatzean aurkeztu zituzten lau aukera 6.151 metroko errepiderako: soluzio «merkeenak» 173.000 euro kostatuko luke, «asmo handieneko» konponbideak ia 24 milioi euro.

URIBE KOSTA | Hezkuntza

Aukeran, euskaraz

Eskualdean D ereduak da aukeratuenak, umeak Haur eta Lehen Hezkuntzan matrikulatzerakoan; hala diote Eusko Jaurlaritzaren azken datu ofizialek, 2016-2017 ikasturtekoek. Uribe Kostan, herri bakoitzaren arabera, lau hizkuntza-eredu daude: A eredu (gaztelaniaz, euskara ikasgai legez), B eredu (elebiduna, gaztelaniaz eta euskaraz), D eredu (euskaraz, gaztelania ikasgai legez) eta X eredu (bestelako hizkuntza bat; gure kasuan, ingelesez). 2016-2017 ikasturtean, 15.823 ikasle inskribatu zituzten; horien arteko % 64 D eredura bideratu zituzten gurasoek eta tutoreek. Bizkaian, zenbatekoa handiagoa izan zen: %70. Gaztelaniaz eta euskaraz ikasteko ereduak, ia laurdena inskribatu zuten Bizkaian; gurean, ordea, % 21,5 izan zen B ereduaren al-



dea. A ereduari dagokionez, Bizkaian 5.143 ikasle inskribatu zituzten gaztelaniaz nagusi-ki ikasteko; horien ia erdia Uribe Kostakoak izan ziren, Getxokoak eta Leioakoak hain zu-zen ere. Gainerako hizkuntzei dagokienez, portzentaieak oso txikiak izan ziren Bizkaian zein gurean, % 1,5 ingurukoak. Hala, D ere-dua da nagusi Uribe Kostako herri denetan, zentro publikoetan eta pribatuetan. Herri txi-kietan, gainera, euskarazkoa da aukeratutako eredu bakarra, Berangon izan ezik, han ia er-diak ingelesez ikasteko aukera egin baitzuen. Udal-erri handietan, portzentaia bestelakoak izan ziren, eta nabarmentzekoak dira Getxo-ko eta Leioako kasuak. Udal-erri biak dira A ereduak ikasteko eskaintza duten bakarrak eskualdean; eredu horretan 2.057 neska-mu-tilek izena eman zuten, denera. ◀

URIBE KOSTA | Memoria historikoa

Burdin Hesiaren aztarnak jagoten

Burdin Hesia «babesteko eta zaintzeko, eta Bilbo Gerra Zibilean babestu nahi zuen defentsa-lerro hori balioesteko proiektua» aurkeztu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak, 2017ko abuztuan. Gerra Zibiletik 80 urte pasatuta zeuden orduan eta Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa bosgarren urtemuga ospatzen zebilen. Burdin Hesia Bilbo eta inguruneak Francoren armadarengandik babesteko eraikitako defentsa-lerroa izan zen. Jose Antonio Agirrerren Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen 80 kilometro luzeko babes-hesia eraikitzea; gizon eta andre gudari askok jardun zuten eraikitze beharretan, batzuk adingabeak. Ferra itxurako defentsa-lerroa Bilbo eta inguruko herriak babesteko asmoz egin zuten, tartean Uribe Kostakoak.

Guillermo Malaina Martinez
ERANDIO.
Irakaslea eta kazetaria.

Jon Urraza Intxausti
GETXO.
Aktorea.

Uxune Irindo Urbistazu
GETXO.
Bilgune Feministako kidea.

Uriz Moreno Ajuria
ALGORTA.
Psikologoa.

Lander Unanue Mendiguren
SOPELA.
Informatikaria.

Koldo Tellitu Meria
LEIOA.
Ikastolen Elkarteko lehendakaria.

Unai Etxebarria Beitia
PLENTZIA.
Arkitektoa.

Enara Diez Oyarzun
LEIOA.
PSE-EEren ordezkaria.

Iñaki Zarraoa Zabala
GETXO.
Politikari eta Getxoko alkate ohia, irakaslea.

Laura Mintegi Lakarra
ALGORTA.
Idazlea eta irakaslea.

Lohitzune Rodriguez Aurrekoetxea
LEIOA.
Filosofian lizentziatua.

Joseba Santxo Uriarte
GETXO.
Filologoa, idazlea eta ikertzailea.

Paul Bilbao Sarria
ALGORTA.
Kontseiluko idazkari nagusia.

Eduardo San Andres Arana
SOPELA.
Matematika irakaslea.

IRITZIGILEAK | Uribekostarren ahotsa

Hamaika aurpegi, hamaika ikuskera

Kultura, politika, euskara, lana, kirola... Bizitza. Iritzigileek astero-astero eskuzabaltasun osoz egindako ekarpena egundoko altxorra izan da aldizkari hau egiten dugunontzat. Doakiela denei gure esker onik zintzoena, omenaldi xume honegaz batera. Eta ondo etorri HIRUKAren ibilbide berrira, hau hasiera baino ez da izan eta!

Aitor Garagarza Cambra
PLENTZIA.
Kazetaria.

Josu Esnaola Aranguren
ELGOIBAR | ALGORTA.
Euskara irakaslea.

Itziar Larrazabal Gardeazabal
ARRANKUDIAGA-ZOLLO.
ELAko eskualde arduraduna.

Unai Brea Gonzalez
BERANGO | SOPELA.
Kazetaria.

Amaia Arriaga Lejarraga
ERANDIO.
Herri-langilea.

Ana Teresa Escudero Bizkarguenaga
ERANDIO.
Kazetaria.

Iratxe Azkue Reinares
LEMOIZ.
LABeko eskumaldeko idazkaria.

Gabi Basañez Ruiz
SOPELA.
Abeltzaina.

Deiane Arrieta Lete
GETXO.
ELAren ordezkaria.

Joxe Belmonte Fdez. de Larrinoa
LEIOA.
Idazlea eta Leioako euskara teknikaria.

Jabi Santa Cruz Agirre
ERANDIO.
Irakaslea.

Oier Iturralde Fernandez «Atano»
ITZUBALTZETA.
EH Bilduren ordezkaria.

Amaia Nerekan Umaran
ALGORTA.
Zinema irakaslea EHUn.

Maitane Nerekan Umaran
ALGORTA | BERANGO.
Kazetaria eta irakaslea.

Armando Llamosas Rubio
GETXO.
Kultura ondarearen teknikaria.

Gorka Aurre Urtzaa
GETXO.
Irakaslea.

Koldo Iturbe Mendilibar
GETXO.
EAJren ordezkaria.

Iratxe Marta Linares
LEIOA.
AEK-ko irakaslea.

Alex Ygartua
PLENTZIA.
Aktorea eta PTBko kazetaria.

Maite Mentxaka Tena
BERANGO.
Ikerkuntza irakaslea.

Ana Masa Pereiro
ITZUBALTZETA.
Getxo errugbi-taldeko jokalaria.

Gorka Mostajo Galduroz
GETXO.
Gizarte langilea.

Bea Sever Egaña
ALGORTA.
Chrysallis Euskal Herria elkarte kidea.

Ana Ramos Sarriugarte
EIBAR | ALGORTA.
Kirol-kazetaria.

Ekaitz Herrero San Martin
ALGORTA.
Kitzikan Uribe Kostako kidea.

Itxaso Paya Ruiz
ALGORTA.
Bertsolaria eta sortzailea.

Juan Luis Mugertza Unanue
ELGOIBAR | BERANGO.
Idazlea eta irakaslea.

Zelai Nikolas Ezkurdia
GETXO | BARRIKA.
Legelaria eta Gure Esku Dagoren bozeramailea.

Saioa Hernandez Castro
GETXO.
Psikologoa eta sexologoa.

Jokin de Pedro Perez-Salado
PLENTZIA.
Idazlea.

Iñaki Etxegia Mardaras
ALGORTA.
Kirolaria.

Janire Enzunza Landa
ALGORTA.
Filologoa eta irakaslea.

Jon Lopez Saez
ALGORTA.
Entrenatzailea eta kazetaria.

Jone Zarraga Eguskiza
ERANDIO.
Goierri sokatira-taldeko kidea.

Jon Elortza Mujika
ARRIARAN | ALGORTA.
Kirol-kazetaria.

Lur Moragues Saitua
ALGORTA.
Bilgune Feministako kidea.

David Crestelo Dominguez
PLENTZIA.
Plasentia Butroe museoko langilea.

Santiago Sainz Robles
GETXO.
Ciudadanosen udal-bozeramailea.

German Kortabarria Igartua
OÑATI | ALGORTA.
Sindikalista.

TOKIKOM SARIAK

Egindako lanari aitortza

Tokikomek sariak banatu ditu azken urte bietan, toki komunikabideek egindako lanik onenak aitortzeko asmoz. Sariaketa horietan, sari bi eta aipamen berezi bat jaso ditu HIRUKAK.



TOKIKOM SARIAK 2017
Aipamen berezia

Udako zenbaki monografiko bereziko informazioari transmedia-trataera emateko ahalegina egiteagatik.



TOKIKOM SARIAK 2017
Azalik onena

Argazkien maila estetiko eta teknikoa nabarmendu zuen epaimahaiak, orrialdearen konposizioagaz batera.



TOKIKOM SARIAK 2016
Azalik onena

Bertoko euskalkitik ateratako esamolde batean oinarrituta, portadak ondo islatu zuen udako zenbaki bereziaren izaera.

PUBLIZITATEA | HIRUKAko iragarleak

Hiru urteotan gugaz egon zaretenoi... eskerrik asko!

Hezkuntza



Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64 / 94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Ostalaritza

txakoli motaTx
gane txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarianda parkea) Goierrri-Erandio
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com



Portu zaharra 35. 48991 ALGORTA
94 408 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ 94 676 07 15



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Informazio + :
94 491 17 86 • www.aixerrotabhi.net



GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaletxe atzean)



Taberna Berri

Sarrikobaso 4, ALGORTA • 94 430 64 93



Santa Eugenia Kalea 13
ERROMO

haur hezkuntzatik
batsilergora



ander deuna
IKASTOLA

Gatzarriñe bidea, 47 • 48600 SOPELA
info@anderdeuna.eus
946 760 266 • 689 01 04 28
www.anderdeunaikastola.eus

Unai
Taberna • Jatetxea

Algortako Etorbidea, 96. 48991 Getxo
94 466 16 61 • tabernaunai@hotmail.com

XURRUT X
Pizza Bar

946 77 13 89 • GORLIZ • www.xurрут.com

AYOBERRI
Sagardotegia



ERRESERBAK: 94 676 42 57



San Nikolas
IKASTOLA

San Nikolasen denok gara gu!!!

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta-Getxo
Tel: 944 305 478
ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus

EKIN
TABERNA • JATETXEA



Bolue 4, ALGORTA
94 608 04 62



Laiak

Bentatxu 2, SOPELA - 94 676 03 28



siaiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna kalea, 25 • GETARIA
T. 943. 140. 143
www.siaiazgetaria.com

Janari dendarak eta garagardoak

hamilton
IDIOMAS

Dr. Landa, 6/Iberre 9 - 94 676 30 12
info@didakhilton.com

JUAN MARI



Harategia Urdaitegia

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

BIHAR
ARTISAU GARAGARDOA



ESKARAK: 664.150.787 • BIHARBEERS@GMAIL.COM

Arte grafikoak

kartelgintza
inprimategia
kopisteria



cianoplan
GLOBAL PRINTERS

Gremioak

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basaguti etorbidea 32
48960 Algorta
94 460 98 31



Moda

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutsa, 18. 48930 Erromo-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com



Prentsa

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak • goxokiak

Getxoko kiral portua • 944 915 321



Iragarleak ere proiektuaren zutabe

Modu askotan babestu eta bultzatu daiteke herri-hedabide bat. Horietako bat, zer esanik ez, norberaren negozioa edo enpresa iragartzea da. Bide horretatik datozen ekarpenak edozein komunikabidetan dira eskertzekoak, baina are gehiago gure txikian egunero lehiaren plazara irtetea erabaki dugun tokiko medio euskaldunetan. HIRUKAn ere ondo gogoan daukagu hori; horregatik ezin aipamen barik utzi gurean izandako iragarle fidelak, kasu askotan komunikazio-proiektu hau jaio aurretik ere luzaroan bidelagun eduki ditugunak. «Finkoenak» dauzkazue orri hauetan ikusgai, baina ez dira bakarrik, asko dira-eta euren buruen berri emateko tarteka HIRUKA aukeratzen dutenak. Horrenbestez, edozein premia edo gurari asetzeko moduko eskaintza zabala topatu daiteke gure aldizkarian (webgunea ahaztu barik). Zuen ahalegina, gure hauspoa. Eskerrik asko! ◀

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 • 48931 ALZOLA
944 305 245 • 607 652 977
regalarizar@gmail.com • www.garalarizar.biz



GARKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9-ALGORTA 944 607 084



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Gura izanez gero,
etxera eroango dizugu egunkaria!

Algortako etorbidea, 7B ALZOLA • 94 491 27 36



4BIDE PINTURAK
mugaz gurea koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotzak
- Zoruzak

Loroño, 2 SOPELA • 94 676 29 92 • 4bidepinturak@gmail.com



Iñaki Bitxitegia
Algorta

Villamonte plaza 3 94 430 23 45

Telletxe 1 94 460 27 41



GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prensa • Finiri lehorak • Aldizkariak • Lekarpenak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO



Gasolindegia

Irunbat
galp energia

Or Leioa Andar Orama, 7-4
Telefono: 946 762 625
Fax: 946 762 582
bide: irunbat.net



GetxoGaso

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00



Auto tailerrak

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika • Karrozeria • Elektronika

Sopelan
Gatzarrino z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.tallerartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

BOSCH Service
Car Service



Klinika

OSABIDE
Hortz-klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra Periodontzia
Ortodontzia PADI

Bidebarri 27, behea eskuina • ALGORTA 944 307 696



REMEX zentroa

FISIOTERAPIA
& ESTETICA

www.remekizentroa.com



Auto kontzesionarioak

LEIOA BERRI AUTO

T. 944 943 026
Iparragirre Etorbidea, 94
LEIOA



Zure enpresaren edo negozioaren
urte osoko publizitate kanpaina
jaso gura duzu?

Ipini gugaz harremanetan: 944 911 337 / 688 811 368
publi@hiruka.eus



Agur t'erd

Aldizkariak atzeko aldetik hasita irakurtzeko ohitura duenetakoa zara? Tira, ez dizugu guk kontra egingo, baina oraingo honetan eta bebingoagatik, biziro gomendatuko dizugu testu honi ez ekitea aurretik 3. orrialdekoa irakurri barik, hau ondo ulertzeko hura beharrezkoa delakoan. Handik bazatoz, honezkero badakizu komunikazio-proiektu honen lehen hirurtekoari agur esateko aukeratu dugun bitartekoa dela esku artean daukazun HIRUKA berezi hau.

«Agur» diogu, baina adiera bi dauzka berba horrek. Eta guk aro berriari ondoetorria egiteko esan gura dugu «agur», zerbaiterako esatekotan. Lerro hauen alboan daukazu HIRUKA berrituaren aurkezpen-ekitaldira etortzeko deia. Itxura eta molde berriakaz gatoz, lantaldean aldaketa esanguratsuren bategaz ere bai, eta otsailaren 1ean aurrez aurre erakutsi gura dizkizugu

uribekostarren komunikazio beharrak ahalik ondoen asetzeko labetik atera berri ditugun ideiak.

Eskualdean jazotzen denaren berri modu sakonean ematearen aldeko apustua indartuko dugu, baina gogoan edukita berehalakotasunaren garrantzia. Horregatik, eguneroko zurrumbilora bezala patxada momentuetarako balioko duen eskaintzagaz ekingo diogu gure laugarren urteari. Xehetasunak... otsailetik aurrera.

Ez litzateke justua, bestalde, gaurko HIRUKA bide luze baten ondorioa dela azpimarratu barik garai berria inauguratzea. Uribe Kostak euskarazko hedabide duinak izan baditu luzaroan, pertsona askoren ahaleginari esker izan da. Ohore handia da haien lanari jarraibidea ematea, eta pozarren beteko dugu eginkizuna. Zuk, honaino heldu zaren irakurle fidel horrek, ez duzu gutxiago merezi. ◀



   **TOKIKOM**
www.hiruka.eus

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoen, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Idoia Lorente

Erredakzioburua: Unai Brea

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu

Argazkiak: Hodei Torres

Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

L.G.: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 8.000

CC-BY-SA



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Bat, bi... hiru! Bagatoz!

Komunikazio
proiektu
berrituari
ondoetorria

**Erdu hiruka
berria ezagutzera...**

Azebarri
Kultur Elkartea
ALGORTA

Otsailak 1
19:00



**Etxebizitza erosteko
eta hura finantzatzeko
prozesuan lagunduko
dizugu.**

Kutxabanketxebizitzagida.eus

Kutxabanketxebizitzagida.eus:

- Prozesuaren checklist-a.
- Gastu-simulagailuak, kuota, hipoteka-konparatzailea.
- Intereseko estekak.

